

**ZENBAT BURU**  
idoia Arozena

**ERREPORTAJEA**  
LVIL Juan Mugerza  
Nazioarteko Krosa



**GENIGARRIA**  
TxikiBARREN


**KIROLA**  
Unai Arrieta  
Bidasoa eskubaloit  
taldeko jokaiaria

**KULTURA**  
Gorka Mujika  
Durangoko musika  
bandaren zuzendaria

# BARREN

2000ko urtarriloren 21a  
Vill. urtea - 305. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



## Mugerza Krosaren lehena eta oraina

d i s e i n u a

Logotipoak  
Irudi Korporatiboak  
Foiletoak  
Katalogoak  
Kartelak  
Maketazioa  
Ezkontza gonbidapenak  
Kamisetak  
Pegatinak

...

Santa Ana 8, Elgoibar 20870

Tel./Faxa: 943 74 12 59



Euskal Herriaren hitza errespetatu

**euskal presoak**

EUSKAL HERRIRA

U - 27an

**GREBAra**

**EH**

Euskal Herritarrok

Ngh

Herri oso baten duintasuna dago jokoan.  
Demokrazia. subiranotasuna. askatasuna  
eta bake eskenatoki bat eraiki  
nahi dugulako. 27an greba orokorra.

**greba**  
OROKORRA



IDOIA A ROZENA

Atal hau ez da BARRENen editoriaia. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, hesteak beste pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Milurteko berria, ziri handia

**2**000. urtean sartzekoak ginela eta, urte osoan zehar makina bat berri, bitxikeria eta pasadizo xeblebre entzun ditugu eta euretako batzuk sinestu ere bai. Bazirudien gauerdiaekin, San Bartolome parrokiako lehen kanpaia entzun eta berehala, sekulakoak ikusi behar genituela: Inork ez zekien oso ondo zertan zetzan ditxosozko aldaketa hori, baina ahaztu ezinekua izango zela behin eta berriz esan digute. Ordenagailuak, bomba nuklearrak, aireportuak eta abioiak, banketxeak, gobernuak... guztiak omen zeuden arriskuan eta guztiak larri (kontu korrontek zero batzuk gehiago markatuko zizkidan itxaropena nuen nik... sikiera ordu batzuez). Bai, zera! Txakurraren putza!

Orain, noski, inork ez du aitortu nahi milurteko berria dela eta, badaezpada, estrarik egin duenik: argia joango zen beldurrez kandela eta poxpolo sorta ederra erosi -batek zekien linternek funtzionatuko zuten ala ez, eta `porsiakaso'-, Altzolako ur botila piloa gorde edo Nafarroako kontserba klase guztiak pilatu. Kia!

Are gutxiago, noski, txorakeriaren bat eskuratu, oparitu edo desio -2000. urteko ordulari, metxero edo boligrafo bereziak, 2000 digitoak oso egokiro bordatuta zekarten kantzontzilo edo kulero gorri-gorriak, hortzetako zepiloak, koadernoak, eta dirua izanez gero, bidaia zoragarri eta bestelako bitxikeriak e.a., e.a., e.a.

Gastatutako dirutzek, ordea, bestelakorik diote, eta kontua betikoa da: gutxi ba-

tzuek sekulako negozioa egin dutela aitzakia horrekin. Ondorengo belaunaldien etorkizuna bera ere sendo lotuta uzten duten horietakoal

Mundu osoan alferrik bota dugun dirua kontatzerik ez omen da, are gutxiago gastatzaileen zerrendakoa izanez gero, aberastu direnek ondo baitakite pilatutakoa zenbat izan den.

Hala ere, gastatutako guztiak baino gehiago beste kontu batek kezkatzen nau ni, urtean zehar jasan dugun etenbago kanpaina mediatiakoak guregan izugarriko eragina duela argi eta garbi gelditu baita. George Orwell-ek ezaguna egin zuen, Anaia handia hura etxean sartuta dugu, telebista, irrati edo egunkari itxurarekin. Mila modutara jasotzen dugu zer eta nolakoak izan behar dugun, gizakiok zein gizarteak, zer eta nor den ona eta zer eta nor ez, zer komeni zaigun, zer jan behar dugun, zer erosi, nola bizi, zer pentsatu... geure buruari harrika egiten amaitu behar dugu konturatu gabe.

Nik ez diot, noski, horiek guztiak Deba ibaira bota behar direnik -ibaira ezta sagar mutxikinik ere ez, nahiz eta biodegradableak diren-eta, are gutxiago, komunikabideak baztertu, neure lanbidea direla kontuan edukiz -nork berea zaindu behar du- baina guztiok dugun zentzu kritikoa zenbat eta gehiago landu, hobe, distantzia gorde, komunikahide horiek jabe interesatuak baituzte.

Irabaztea horrenbeste kostatzen zaigun dirua hain erraz alferrik galtzen baldin badugu, gutxi batzuen mesederako gainera, zer ez ote dugu botako, galduko, ahaztuko edo desegingo hurrengo batean?

Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN



Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

ra' **943 74 41 12**

Publizitatea:  
943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.cornibarren

ARDITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZALLEA Elgoibarko Udala

KAZETARJAK Irati Agirreazaldegia,

Jon Eugi eta Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Cld

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIDA Amaia Martin

GERENTZIA Rara Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idola Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Juanto Gorostiza,

Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguena,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.100 ale

LEGE GORDAILLIA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jauriaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



umerr

**WEII** *gizarte-ekintza  
obra social*

**4,6**  
**DANOBAT**

**44** **00111**  
GRUPO DANOBAT

## LAB 25 <sup>1111</sup>18 lanean

**n**rain dela 25 urte martxan jarri zen sindikatu sozio-politikoak, Bilboko Ezkerraldean, hain zuzen ere, langile abertzaleen eta ezkertiarren artean hutsunea zegoela ikusita. Egoera latzak bizi izan ziren Frankoren ondoren sorturiko presio eta bazterketa politikoa zela-eta, baina gure militanteen tinkotasunak eta borrokak aurrera eramaten zuen proiektua, eta gaur egun eszenatoki berri baten aurrean gaude, bai arlo sindikalean eta baita an ere.


LABek beti borrokatu du etahala jarraituko du presoen eta errefuxiatuen alde, langabetuen alde, bazterketa sozialaren aurka, lurraldetasunaren, ingurugiroaren, gaztediaren problematikaren, emakumeen, jubilatuen, autonomoen, euskararen... alde, oro har langileen eskubideen alde.

LAB eta ELAren inguruan sortu den elkarlanak erabateko eginkizuna betetzen du, nahiz eta lantokietan hutsune eta kontraesan askotxo agertu, jarrera sindikalek eikarren kontra segitzen dutelako. LAB hirugarren sindikatua da (ELA eta CCOO ditu aurretik), 27.000 afiliatu ditu, eta egunero gora egiten du, bai afiliatu kopuruan eta baita hauteskundeetan ere.

Egoitza berria dugu Elgoibaffen eta ilusioz beteta gaude, jende guztia-rekin elkarlanean aritzeko, bai arlo sozialean eta baita politikoan ere.

**Elgoibarko Herri Biltzarra**

BARRENez ez du bere gain hartzen IRrTZIA eta ESKUTITZAK ataletan atherazitako enrantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.



- "Zakarrak birziklatzearekin arduratuta dagoen herritar batek galdera hau egin digu: **Duela gutxi jarri dituzten kontenedore horietan bota al daitezke plastikozko poltsak eta kristalezko poteen metalezko tapak?**

Mankomunitatera hots egin dugu eta hau izan da bertan eman diguten erantzuna: **Bai, bota daitezke.** Poltsak plastikozkoak badira eta tapak metalezkoak, birziklatzeko kontenedore horietara bota behar dira.



## BAI, ESAN?



**Benantzio  
Otegi**

Elgoibarko parrokoa

Ezustean iragarri zuen joan den astean Jose Maria Setienek Donostiako apezpikutzat utzi duela. Setiienen lekua Juan Maria Uriarte bizkaitarrak hartuko du. Kargua aldatzeko ekitaldia hilabete eta erdi edo bi hilabete barru izango bada ere, guk aurrez **Elgoibarko parrokoa den Benantzio** Otegiarekin hitz egin nahi izan dugu, berri honen inguruan berak duen iritzia azaltzeko.

**Nola hartu duzu Setiienen erabakia?**- Hasieran penaz eta sorpresaz. Baina bere idatzia irakuni nuenean lasaiago hartu nuen. Jokabide zuhurra iruditu zait, bai berarentzat, bai guretzat eta baita herriarentzat ere.

- "Etorkizunera **begira elizbarrutiarentzat hobereana izango dena ziurtatzea**" nahi omen du Setiienek.- Setien Euskal Herriko gizartearentzat eta elizarentzat erreferentzia bat izan da. Vatikanoko II. kontzilioak bultzatutako enefornia aurrera eramaten saiatu da euskal gizarte konplexu batean. Koherentziaren eta hitzaren bidez gizarteari argia eman dio.

- **Zer deritzozu Juan Maria Uriarteri, gotzain berriari, buruz?** - Oso gizon prestatua eta argia da. Hori egia dela tkusteko, nahikoa da Bizkaiko gotzain zela Setiienekin batera egin zituen dokumentuez jaberzea. Hor ikusten da kontzilio osteko gizona dela eta hori bultzatu nahi duela. Gainera, Setiienek berak dio pozik dagoela Aita Santuak bere ordezkotzat Uriarte aukeratu izanarekin.

- **Aldaketak zein eragin izango ditu?** - Helburuetan ez da aldaketa nabarmenik izango. Gotzain bakoitzak bere ekipoa dauka eta baita norberak bere estiloa ere, baina oinarrian mezu aldetik ez da aldaketarik egongo. Bestalde, indar mediatikoen Setieni zioten etsaigoa baretu egin dela dirudi.

- **Bi apezpikuek eman dute zeresanik politika munduan, ezta?** - Bai, batez ere Setiienek. Indar ekonomiko, politiko eta mediatikoen alboan, bere jokabide propioak aurrera eramaten saiatu da, Uriarte, berriz, malguga izan da. Arlo politikoan behin baino gehiagotan esan dute gotzainek bitartekaritza lana egiteko prest daudela. Politikan ezezik Setien bera beste hainbat arlotan aritu da lanean, hala nola, euskal kulturaren, drogomengotatasunaren eta Hiesaren kontra...

5.2E<sup>1/4</sup>

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantziska, 49-1 Tel: 943 74 11 89




**Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga


SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 tr 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

# Juan Mugerza insai



Casto Iraegik sortu zuen Mugerza Memoriala 1943. urtean

*Atletismo zaletasunak bultzatuta, Casto Iraegik eta Tomas Zubizarretak, 1943. urtean antolatu zuten lehen aldiz Juan Mugerza Memoriala korrikalari elgoibartar handia izandakoaren omenez. Prudencio Aiemt bernaniarrak irabazi zuen lehen lasterketa hura. Iazko lasterketa, berriz, Paul Tergat keniarrak, 5 aldiz munduko kros txapelduna izan denak. 56 urteko tartea dago bi lasterketen artean. Urte hauetan guztietan zuri-beltzetik koloretara pasatzea gain, krosaren antolamenduak eta lasterketak berak aldatu itzela izan da. Hori dela-eta, Juan Mugerzak 100 urte beteiko ditu urtean, aldatu hauen inguruan berba egin dugu Ego-Toki Elkartearen kideekin. Jose Mari Kortabezia eta Fermin Arresek lagundu digute Illugerza Krosaren lehena eta oraina ulertzen.*

## Mugerza Krosaren historia laburra

**1943** urtean sortu zen Juan Mugerza krosa. Casto Iraegi izan zen bultzatzaile nagusienetakoa. Hasieran, C.D. ElgoilunTek antolatzen zuten eta zirkuitoa Elgoibarko kaleetatik pasatzen zen. Sorrentetik lortu zuten entzutea Gipuzkoa osoan. 1917. urte inguruan Lerunera pasa zuten zirkuitoa. Baina benetako aurrerapausoa 1963. urtean egin zuen, Gipuzkoako Atletisano Federazioaren babesari esker, maila internazionala eskuratu baitzuen. Fermin Arresek azaldu digu nola heldu ziren lehen atzeritarrak Elgoibarrera, "Donostiako krosa baino lehenago zuten gurua. Manzanillo Wolde eta beste Etiopiar batzuk Donostian entrenatzen zagozela jakin gendun Mn, Elgoibar aldera ekartzeko as-

## 1963. urtean, Gipuzkoako Atletismo Federazioaren babesari esker, maila internazionala eskuratu zuen Mugerza Memorialak

muakin jun ginan bertara. Donostiarrei ez zien grazia handirik ein, Etiopiar Donostian aintzintzika ein aurretik Elgoibarrera etortziak. Dana dala, Etiopiar gure gonbita onartu zaben eta 40.000 pta.n trinkian ekarri genitxun. Argentinako bat ere etm-ri zan Donostiatik. Aurreko eguneko San Sebastian eguneko tanborradiak lo ondo eitzen laga ez ziola kejarren zan, baina azkenian hirugarren atera zaban. Beltzak korrika ikusteko kuriosidadia zaban, nobedadia zan-eta. Orduan ez zitxuen karrerak telesiñotik enzititzen. Ikustekua izan zan zenbat jende inguruan zan karrera egunian Lerunera. Azkenian, IV alde irabazi zaban eta periodiko danetan azaldu zan Elgoibarko kamaria". 1965. urtean lasterketa internazionalen egutegian sartu zuten Mugerza Krosa.

### MOMENTUKO KORRIKALARI ONENAK

Elgoibar herriaren izena munduan zehar zabaldu duen gauzarik baldin bada, Nazioarteko Juan Mugerza krosa izan da hori. 1965. urtetik aurrera, historiako eta momentuko korrikalaririk onenak izan dira Lerunen lehenengo eta Mintxetan gaur

egun. Txapeldun olinpikoen, munduko txapeldunen eta errekor jabeen zerrenda amaigabea da: Mammo Wolde (Mexikoko Olinpikoetako marathoiaren irabazlea), Abebe Bikila (Erromako joku olinpikoetako marathoia hanka hulsik irabazi zuen atleta mitikoa), John Ngugi (5 aldiz munduko

kros txapelduna), Martin Fiz (Munduko marathoi Ixapelduna), Haile Gebreselassie (10.000 metrotako errekorren jabea), Paul Tergat... maila honetako korrikalariak Elgoibar moduko herri txiki batera ekartzea ez da batere lan erraza. Gaur egun atletaririk hoberenak ekartzeko egin behar den

# ien lehena eta oraina

esfortzu ekonomikoa izugarria da.

## ANTOLAKETA

Ego-Toki Elkarteko Atletismo batzordeak izaten du krosa antolatzeko ardura. Jose Mari Kortaberriak azaldu digunez, "Irailian hasten gera krosa prestatzen. 4 arlo nagusitan eitzen dogu lan: Finantziarioa, kontratazioa, azpiegiturak eta zirkuituan prestaketia. Finantziarioa erakunde publikoen, sarrera eta eskupekoen bitartez lortzen dogu. Baina, batez ere, publizidadian bidez. Ondoren kontrataziuen txanda izaten da".

## KONTRATAZIOA


Jose Marik azaldu digunez, "Lortu-tako diruaren %90a atletak kontratatzen gastatzen da. Aurten adibidez, 14 milioitako aurrekontua daukagu. Juan Mari Iriondo da kontrataziuen arduraduna. Atletismozale amorratua da eta gitxik jakingo dabe berak adina atletismuaz. Bera arduratzen da managerekin berba ein eta atletak ekartziaz. Gaur egun atletismo mundua tzugarri profesionalizauta dao. Atleta bakoitzak prezio bat daka eta prezio horrek managerrak jartzen ditxu. Gaur egun ez da korrikalarixakin zuzenian hitz eitzen. Juan Mariren lana ahalik eta saltakari hobienak prezio merkienian ekartzia da. Tentu handiz ibiltzia komeni da, era guztixetako managerrak dao-eta, baitxa tranposuak ere. Forma onian ez eon arren atletak etortziarren diru gehixegi eskatzen dabe. Managerren mundua konplikaua da. Batekin tratua in ezker, gertau laike beste batek gurekin ezer jakitzerik nahi ez izatia. Juan Mari moduko negoziatzaile bat eukitzia biharrezkua da,



asko ententitzen dau eta bera engainatzia oso zaila da". Jose Mariren iritzi atletismoarena mundu oso bat da, "barrutik bizi dozun arte ez zera konturatzzen zenbat gauza hartu bihar dian kontutan eta zenbat lan dakan ordu batzutan eingo dan ekin-tza batek. Dana dala, krosa ondo urten dala ikustia da satisfakziorik handixena. Pasa dan urteko krosa da adibiderik garbiena: Paul Tergat, munduko txapelduna ekarri genun, aste bete pasau zaban gure artian eta eguraldixak ere lagundu zigun. Dana primeran irten zan".

## ATLETEN PREnOAK

Korrikalariek etortzeagatik guixle-  
neko soldata finko bat kobratzen dute. Bidaia da beraien poltsikotik ordaintzen duten gastu bakarra. Jose Marik azaldu digunez, "20. geratzen denak 200.000 pta. irabaz ditzake. Punta-puntakoek, berriz, milioi batetik gora kobratzen dute etortzeagatik bakarrik". Lehen gauzak oso bestelakoak zirela aipatu digu Fermin Arresek, lehen ez gendun dirurik banatzen, labadorak, alkandorak, eskopetak, urrezko erlojuak... izaten zian premio bakarrik. Batzutan mahai gainian jartzen genitxun premixo guztixak eta irabazliak bere gustukuak aukeratzzen zitxun". Azkenik, zirkuitoa txukundu eta prestatzea izaten da azken pausoa. Lan honetan boluntarioen laguntza izaten dute, baina azken aldian gero eta gutxiago direla laguntzeko prest daudenak aipatu digute Ego-Toki Elkartetik.



"20. geratzen denak  
200.000 pta. irabaz ditzake.  
Punta puntakoek, berriz,  
milioi batetik gora kobratzen  
dute etortzeagatik bakarrik"

## HERRI TXIKIAREN XARMA

Paul Tergat moduko munduko ixapeldun bat Elgoibarrera ekartzea oso

zaila da, "Realak Ronaldo fitxatzen parekua da. Baina bera eta gainontzeko izar guztixak oso gustora etortzen dia Elgoibarrera. Donostian eta beste leku askotan 5 izarretako hoteletan egoteko aukeria dake, baina hemengo jendian berotasuna eta tratua asko eskertzen dabe. Euren aldetik ere interes berezixa eukitzen dabe eta soziedadien funtzionamendua eta beste gauza askori buruz galdetzen digute. Lehen, egun gehixo pasatzen zitxuen gure artian eta eskopeta fabrikia, sigma, etab. bisitatzera eruaten genitxun".



Goian, ezkerretik hasita: Ricardo Astigarraga, J.M. Iriondo, Paul Tergat, Ricardo Garale eta Jose Gurrutxaga. Behean, Enrike Astigarraga, Fermin Arrese, J.M. Kortaberria eta Igor Mugerza, Mugerza Krosaren antolaketaz ardurulzen direnak.

## Jua nagerzaren &10 7a'e



### 00 O urieurrena

- 1900eko maiatzaren 6an jaio zen Juan Mugerza. elgoibartarra. Entzute handia lortu zuen herriz heni kros lasterketetan. Espainiako brapeldun izan zen 1917. urtetik 1923. urtera bitartean 5.000, 1.500 eta 800 metroan. Honez gain, Espainiako txapeldun izan zen 110 metro hesietan, bai eta en-elebu taldearekin ere.

- 1920an Amberesko Olinpiadan 5.000 metroko lasterketan S. postuan geratu zen, eta 1.500

metroan seigarren. Behobia-Donostia lasterketaren lehen edizioa ere berak irabazi zuen. 1937. urtean hil zen 37 urte besterik ez zituela. Gerra zibila zen eta Mungian izan zen bonbardaketa batean galdu zuen bizia.

- Elgoiharren izan den korrikalaririk handienaren izenean 1943. urtean Juan Mugerza Memoriala sortu zen, eta aurtengo 57. edizioa izango da.

# Itxikeria

A Mariano Harok 5 aldiz irabazi zuen Juan Mugerza krosa, bera da garaipenen errekorra duena. Emakumezkoetan, berriz, Belen Azpeitiak 6 aldiz jarraian irabazi zuen krosa.

- Mammo Woldek Belen Azpeittak utzitako oinetako batekin amaitu zuen irabazitako lasterketa bat, berea lokatzetan galdu baitzuen. Beienek ere lasterketa irabaztea lortu zuen.


A Haile Gegreselasi, gaur egun munduko atletarik hoberenetakoa eta Etiopiako gizonik aberatsenetakoa, Txariduna jatetxeko zerbltzari batetaz maitemindu zen. Debako neska bat zen eta Gebreselassiek interes handia erakutsi omen zuen.

A 80. hamarkadan, ingelesak bcarridunatik irten eta Azkaratera korrika joanez entrenatzen ziren. Ez zen aposturik fatta izaten, ezta bide ertzean kuriosorik ere.

- 1981, urtean izugarritzko elurtea egin zuen eta krosa suspenditu egin zen. Hala ere, errifak atera zituzten eta herritarren lagunlari esker dirua berreskuratu.

A Prestakuntza fisiko eta dieta zorrotzak egitera behartuta badaude ere, zenbait arikarrek Ermuara gauez'eskpadak' egiteko ohitura zuten, nahiz eta askori igari ere ez egin lasterketa egunean

- 1992an Domingos Castro portugaldarrak azken metroetan galdu zuen lasterketa, helmuga zegoen tokoa baino lehenago zegoela pentsatu baitzuen. Hala ere, Ego-Tokitik esan digutenez, '1 lahiko erreta heldu zen helmugara eta gaizkiulertua baino ezina izan zen gehiago, atzetik zetorren keniarra, Omwoyok ziztu bizian baitzetorren". Keniarra aurreko egunean Santanderreko danizaleku baten izana zen ordu txikietan, eta hala ere irabazi egin zuen, izugarria!







## Herriko Antzokian jende ugari bildu zen 'Golden Apple QuaMeren saioan

Astebururako antolatutako ekintzek harrera ona izan dute

**J**oan den ostiralean hasi eta astelehenera bitartean, San Anton jaietan gozatzeko aukera izan genuen elgoibartarrok. Ostiralean, hilak 14, Golden Apple Quartet taldeak eskainitako emanaldia ikusteko jende ugari bildu zen Herriko Antzokian. Donostiako laukote honek saio ederra eskaini zuen eta beraien kantuak entzutera joandakoek gau polita igaro zuten.

Larunbat goizean, hilaren 15ean, Filatelia Elkartearen Erakusketa inauguratu zuten. Aurtengoan Ansolataren dinastiari buruzko zigilu berezia kaleratu dute eta erakusketa hilaren 23ra arte egongo da irekita. Igande arratsaldean haurrak izan ziren jaretako protagonistak, 'Taun Tatuf talde bergararrak "Txio Txioa" antzezla-



na eskaini zuen beraiantzat eta ondoren, erraldoi eta buruhandien kalejira izan zen. Astelehenean, goizez eta arratsaldez, haurrentzako parkea jarri zuten Plaza Handian eta nagusienez, Enzantzaren Bandak eskainitako doinuak entzuteko parada izan zuten. Hiru egunetako zubia aprobetxatuz kanpora joan ez zirenek, beraz, izan zuten herrian zerekin gozatua.



*Haurrek beraiantzat prestatutako jolas parkean gozatu zuten. Helduek, berriz, txalo zaparrada luze batez agurlu zuten Golden Apple Quartet talde donostiarra.*

### • Larrialdietarako anbulantzia zerliffinia mantenduko da aurten ere

Udalak larrialdietako anbulantzia zerbitzuari eutsiko dio 2000. urtean. Aurten Elgoiharko herria Larrialdi Zerbitzuetako Sarean sartzea lortu da eta Elgoibanen dauden anbulantziak mantendu egingo dira. Udalarentzat oso garrantzitsua da horrelako ekintzei enstea. 1998. urtean Gurutze Gorriak anbulantzia zerbitzu hau uztea erabaki zuen, Eusko Jaurlaritzarekin ez zelako subentzjoen kopuruan akordio batera iristen. Orduan, Eusko Jaurlaritzak zerbitzu hori betetzeko enpresa batzuk azpikontratatu zituen. Udalak, aldiz, denbora tarte horretan zerbitzu hori mantendu du Gurutze Gorriaren laguntzarekin. Udalak ez zion horri utzi nahi, zerbitzuak herrian mantentzearen aldekoa delako, eta nahiago duelako herritarrek elgoibartarren beraien zerbitzua jasotzea eta ez kanpokoek emandakoa.

## A, Otegi: "Lurraldetasunik eza da Euskal Herriari egiten zaion ukaziorik bortitzenan


Toart den asteazkenean, **J** hilaren 19an, Arnaldo Otegi, EHko eledunak, "euskal demokrazia proposamena" aurkeztu zuen Kultur Etxean.

euskal prozesu demokratikoaren oinarriak bi direla adierazi zuen, "Euskal Herri oso-rako izatea eta euskal herritar guztiei zuzendua egotea". Hala ere, proposamena praktkan jartzeko oztopo nagusi hat dagoela esan zuen. "Euskal Herrian ez daukagu ez gobernurik ezta parlamenturik ere. Beraz, normalizazio politikoa Iortzeko batzar eratzaille bat sortu behar harko litzateke, Euskal Herriari marko politiko-judizial berria emango diona".



*Ezker ikuspegitik prozesu demokratikoa irekia dela esan zuen Arnaldo Otegi, EHko bozeramaileak.*

Otegiaren esanetan, "XXI. mendea ongi hasi dugu eta proposamen ezberdinak mahai gainean daudenez, unea aprobetxatu beharra dago".



## BARRENen gida komertziala kalean da


Urtero, urtanilean BARREN aste-kariak ateratzen duen Elgoibar eta Mendaroko gida komertzialaren 2000. urteko alea kalean da jandak. Bertan, bi hermotako denden, lantegien, eta beste hainbat zerbitzuren izenak aur-

ki daitezke bakoitzaren helbidea eta telefonoa adamenean zehaztuta. Gidaren helburua, heniko komertzioa herritarren eskura jartzea da. Beraz, gaur zuen buzoietan BARRENen aste honetako alearekin batera jaso duzuen liburuxka, Elgoibar eta Mendaroko komertzioetako telefonoen bila ari zaretenean erabilgarria izango dela uste dugu.



## Alain Ulazia mendararrak irabazi du XV. Eibar Hiria Ipuin Lehiaketa

Eibarko Udalak ezagutzera eman ditu XV. Eibar Hiria Ipuin Lehiaketako irabazleen izenak. 18 urtetik 25 urtera bitartekoan mailan, Alain Ulazia (goian) mendarotarra izan da irabazlea, 'Malerusena eta pizmalionena' lanarekin. Lehiaketa honetan bertan, Unai Villena (azpian) elgoibartarraren 'Miker' izeneko idazlanari hiruganaren saria eman diote.



## 'Arigeraw proiektuaren aurkeigena

Bihar, larunbata, hilak 22, Elgoibarko Izarrak, Udal Euskaltegiak, AEK Euskaltegiak eta Udalak 'Arigeraw' proiektuaren aurkezpena egingo dute Udaletxeko Pleno Aretoan. Egurdiko 12:00etan hasiko den ekitaldian proiektuaren nondik norakoak azalduko dituzte. 'Arigeraw'ren helburua Elgoibarren helduen euskalduntze-alfabetatzea suspertzea da. Aurkezpen mahaian alkatea, Elgoibarko Izarrako lehendakaria, AEK euskaltegiko eta Udal euskaltegiko zuzendariak eta bi euskaltegietako ikasleak egongo dira. Aurkezpena irekia izanango da eta nahi duen guztiak joateko aukera izango du.

## Presoen eskubideen aldeko Bodisalantoldan

## egin dute



Urtarrilaren 19tik 21era bitartean, presoen eskubideen aldeko itxialdia egin dute Rodisa lan tokian. Hiru egunetako itxialdian 12 langilek hartu dute parte. Hilar-

ren 19an eskaini zuten prentsaurrekoan ordezkariek azaldu zuten, "Euskal Herriak presoen eskubideak errespetatu behar direla erabaki du, baina Madiilek eta Parisek iseka egin diote euskal herrintren borondateari". Langileek laneko txandak enespetaty dituzte, baina gainontzeko orduetan lantokiko gela batean egon dira. Itxialdiko batzuan preso politikoei konpromiso serioa eta sendoa bultzatzeaz gain, zera adierazi nahi die Elgoibarko langileei: "Gai honen inguruan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko. Hala nola, Iruñean bihar, larunbata, egingo den manifestaldian eta baita urtanilaren 27ko greba orokorran ere".



**Sfidita Yeneral de, rouutht**

Jausoro plaza, 1 behea Tel: 943 74 26 99



Delegatuak: Manuel Santos Alba eta M. Luisa Urain Arakistain

Elgoibarko delegazioak urtero bezeroen artean zozketatzen duen telebista, Errehabilitazio Zentro Funtziolari egokitu zaio.  
**Zorionak!**

# Gripea ohean ala medikamentuen bidez pasatzearen aidekna zara?



**JONE URANGA**

45 urte, txarkuteroa

Ohian. Kalenturia bajau eta pasau arte bertan egon. Infekziva egonez gero zeozer gehixao hartuko neuke, baina gripia bakarrik badao, zumo batzuk eran eta ohia onena.



**MARIA TAIN**

42 urte, etxeoandrea

Nik medikamentuekin kontuz ibili behar izaten dut askori alergía diedalako, beraz, esnea eta ezta hartzen ditut. Gripea harrapatu dut, baina ez naiz ohean egon.



**MARIA JESUS APAOLAZA**

42 urte, etxeoandrea

Ohian dudarik gabe. Ez dot askotan griperik eukitzen, baina sendatzeko onena ohia dala pentsatzen dot. Hartzekotan aspirinaren bat, besterik ez.



**CESAR TAMAYO**

45 urte, elektrizista

Ohean eta limoizko zumoak hartzen. Aurten ez dut gripea pasatu, baina iaz bai, eta orduan atsedena eta ohean izerditzea izan ziren erremedio bakarrak.



**INAZIO KORTABERMA**

59 urte, jubilatua

Bixak batera itxia onena. Nik al danik eta azkarren pasatzia nahi izaten dot, eta ez dot inungo erreparorik eukitzen botikak hartzeko. Baina ohian ere pasau leike.



**JOSE FELINAND**


70 urte, jubilatua

Ohean pasatzea da onena. Etxeko erremedioak erabiltzen ditut nik. Dena den, azken urteotan ez dut griperik harrapatu aurrez bakunatzen naizelako.




## ESKERTZA

2000ko urtarrilaren 17an, 85 urte zituela hil zen **AGAPITA SORAIZ LIZARRA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta efizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2000ko urtarrilaren 10ean, 94 urte zituela hil zen **ALBERTA ETXANIZ ARRIETA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Txiki BARRREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 60. GEHIGARRIA



# A

zaroaren 30ean Elgoibarko Herri Eskolako 4. mailako neska-mutilak Eibarrera joan ziren San Andres Eguneko azoka ikustera. Gelan eskualdeko nekazaritza eta abeltzantza aztertzen ari zirenez, bertan izan zuten gertutik flainbc:It abere, fruta eta barazki ikusteko aukera bikaina. Nekazariei eta postuetako saltzaileei galderak eginez eta dastatzeko eman zizkieten gazta zatiak janez, primeran pasa zuten San Andres Eguneko goiza.

# e

Gizon xuhur batek esaten dio gozogileari:  
— Jar itzazu bi kandelatxo pastean, nire alabatxoak hiru urte betetzen ditu-eta.  
— Hiru kandelatxo esan nahiko duzu orduan.  
— Ez, ez, nahikoa dira bi, neskatilak oraindik ez daki zenbatzen eta.



# e

# Jakitunen eskutiL

## Nerabezaroa

**G**aur TxikiBARREneko orrietan agertzen diren haurrak urte gutxi barru nerabezarora helduko dira. Haurtzarotik gaztarorako aldi hori gurasoen eta gaztetxoek arteko guda bihurtzen da askotan. Baina, zer da nerabezaroa? Zer gertatzen zaie gurasoei haurrak bizitzako garai hortara heltzen direnean?

Gaztetxoek izugarritzko aldaketa izaten dute izaeran ezezik baita itxuran ere. Lehenengo aldaketak gorputzean gertatzen dira. Neskei hilerokoa iristen zaie eta titiak hazi. Mutilari, berriz, bigotea hazten zaie eta ahotsa aldatu. Sikologikoki galderen aroa dela esan genezake: Nor naiz? Zer egingo dut handitzen naizenean? Sarritan erantzunik gabeko galderak dira, eta horrek beldurra ematen die gaztetxoei ezezik, baita gurasoei ere.

Gurasoak haurrak kontrolatzen dituzten galderak serio hartu behar dira. Ez dituzte erantzunak nahi baina gurasoek entzun diezaieten eskertzen dute, ondoren erantzunak beraiek aurki ditzaten. Haur izatetik heldutasunerako jauzi horri aurre egin behar diote.

Gurasoak ere aldaketa horren parte dira, beraiek ere neurri batean aldatu egin behar direlako. Lan astuna da berarentzat haurra agurtu eta heldua izango denari ongi etorria ematea. Nerabezaroa ez da gaztetxoek arazoa bakarrik, gurasoek ere trantze hori pasatu behar baitute.

Beraz, hona hemen hainbat argibide, haurrak nerabezarora heltzen direnerako:

1. Seme-alaben galderak entzun behar dira eta berehalako erantzunak kontrolatu.
2. Edozer gauzarengatik protestatzen laga behar zaie arduratu gabe.
3. Haurrak hazteak min egiten dizun arren, ez diezu beraiet jakinarazi behar.
4. Gogoratu zu ere nerabe izan zinela.
5. Lagundu, baina beti ere urrutitik.
6. Beraiek diotenarekin bat etortzen saia zaitetz.
7. Hurrei askatasun piska bat ematea komenigarria da.

Iturria: 'Mujer de hoy' aldizkaria

## Zer iritzi daukazu .....

## Pijolda ri buruz?




0141 4.0,~1.04.

24.14.4A. ti,"34,44

imiJ~, WO/, smi,j~

ospitalera dei dezakezu.

LEIRE IPIÑA, 9 urte



A~

OU. 0,4,4.14,444t. EV444 iimAht ele44, y4c, 41,414

1.144A/Av.444.11444. e1f9AA. 3.14Z9. 1 eitklmehZu.

ITSASO QU1NTAS, 12 urte.



1'14114 44444 Witjw"lekl,o~ta 614 Uo"41,Z.km eUli4e1, eA

ton.a1111.v., 4C.4%14.4144 Utitytt" tleatte444.

IÑIGO ARRESE, 8urte

kokkgj' t



**LOLLA**

**C urte**

- 1- Etxeko ganbaran.
- 2- Beldurgarriak dira eta ez ditut gustuko. Makiladora izatea nahiko nuke.
- 4- Arkatza. Zerbait gaizki eginez gero boligrafoa flpex-arekin bakarrik borratu daiteke-eta.
- 5- Ez ditut kirolariak ezagutzen.
- 6- Amonaren atekotik.
- 7- Ingelesa.
- 8- Marrubia gustatzen zait gehien.

## Gaide debaide

1. Non gordeko zenuke altxor bat?
2. Nolakoak dira extralurtarrak?
3. Zein lanbide duzu gustukoen?
4. Idazteko arkatza ala boligrafoa?
5. Kirolari bat.
6. Zeinen ateko giltzaren zulotik begiratuko zenuke?
7. Zein hizkuntza ikasi nahi zenuke?
8. Zapore gogoko bat.



**AITOU**

**11 ELISANDEZ  
11 urte**

- 1 Lur azpian.
- 2- Berdeak, eta hanka eta beso asko dauzkatenak.
- 3- Delineantea.
- 4- Arkatza, borratzeko ez duelako problemarik emafen,
- 5- Becham futbolaria.  
Nire anaiaren ateko zulotik.  
Txinoa.
- 8- Natilen zaporea gustatzen zait,


## Zer

**JORGE MARTINEZ 9 urte**



Arnasa hartzeko eta gero botatzeko da. Arnasik gabe hilko ginateke.


**JILLIESI FIXECERRIA C urte**



Airea txoriak bezalako da hegan egiten duelako.



Hodei baten putza da airea.



Bizitzeko guk arnasten duguna da. Airea oxigenoz beterik

**IZASELIS DE MALCOS C URTE**



Kometak zerura eramaten dituen.

**AINHCA EALICLA 10 urte**



Airea da bizitzeko arnasten dugun gauza bat.





Juanjo Gurrutxaga 42 urteko erizain laguntzailea da. Aurretik lan ezberdinetan aritu ostean, iaiztik Arrasateko San Juan de Dios eritetxe psikiatrikoan dabil lanean. Gustura ari dela aitortu digu, berak benetan hori egitea gustuko baitu. Gaixoen lehentasuna daukatela esan digu eta beharrezkoa dela haiek ezagutzea eta maitasunez tratatzea.

# JUANJO GURRUTXAGA

## "Gaixo psikikoei laguntzein gaude, ez beraien bizitza zailagoa egiteko"

—**Noiz eta nolatan hasi zinen Arrasateko San Juan de Dios psikiatrikoan lanean?**

Iazko apirilean deitu zidaten. Aurretik bi eritetxetan lanean ibili nintzela jakin zuten, hirugarren adinekoekin, Donostiako Matian, eta Bartzelonako Camilos ospitalean. Hori utzi egin behar izan nuen. Ondoren, beste lan batzuetan aritu nintzen. Gero, arnaren gaixotasuna zela-eta, mediku buruak nirekin hitz egin eta curriculum bidaltzeko eskatu zidan. Bost aurkeztu ginen lanpostu baterako eta ni hartu ninduten. Maiatzean bertan hasi nintzen lanean.

- **Alde handia egongo da aseguru etxe batean lan egitekin beste honetara, ez?**

- Ni aurreko lanean oso gustura nengoen. Baina benetan egin nahi nuena hauen zenez, horretan sartu nintzen

bete-bete. Lan mota guztiz ezberdina da, noski. Niri beti gustatu izan zait hirugarren adinekoak eta gaixo psikikoak zaintzea. Lan honetan gustuko dudalako nago. Baina gerta daiteke une batean, horretan ezin lan egitea, lanak gainditu egiten zaituelako.

**Nolako da eritetxearen antolaketa?**

- San Juan de Dios eritetxe psikiatrikoak pabilioietan banatuta dago, guztira zazpi ezberdin daude. Era guztietako gaitzei lotutako bi pabilioi daude, baina autonomoak diren gaixoei. Bakarrik moldatzen diren gaixo hauek ahuldu etab. egiten direnean, beste pabilioi batzuetara eramaten dituzte. Bertan autonomoak izaten segitzen dute, baina laguntza gehiago eskaintzen zaie. Gero, une orokoa laguntza behar duten gaixoak daude. Hauen artean

adin nagusiko jendea dago, bakarrik moldatzen ez direnak eta laguntza behar dutenak.

—**Zuk pabilioi ezberdinetan egin duzu lan, ezta?**


- Nik pabilioi guztietan egoteko zortea eduki dut. Hirugarren adinekoen pabilioian hasi nintzen. Ondoren, beste edadetu batzuekin aritu naiz, baina une guztietan laguntza behar dutenekin. Azkenik, orain nagoen pasatu nintzen. Hemen 150 gaixo daude, eta beharrezkoa da lasai egotea eta apurka-apurka gaixoa ezagutzen joatea. Bakoitzak bere 'zera' dauka-eta. Gaixotasun bera izanik, modu ezberdinetan ager daiteke.

— **Nolakoak dira gaixo hauek?**

- Gaixo autonomoak dira, 20 urtetik hasi eta hirugarren adinera bitartekoak. Lan fisiko askoz gutxiago dauka, euren egiten dituztelako beraien lanak: ohea egin... Bakoitzak gaixotasun ezberdinak dauzka. Pertsona arruntak dira, baina diren bezalakoak izanda, kontrolatu ezinezko enekazioak eduki ditzakete. Orduan, botikak eman behar dizkiezu eta beraienkin arreta eduki. Batzuetan zigor txikiak ezarri behar dizkiezu ez dituztelako gauzak behar bezala egiten. Baina beraien berehala kontrolatzen dira, kariñoa irabazita dutela badakite-eta. Gainera, laguntzeko gaude eta ez beraien bizitza zailagoa egiteko. Gaixoei ondo jokatzeko saiatzen gara, ez da beraien gehiegikeriarik egiten. Gaixoak lehentasuna dauka, bai medikuntzat eta baita guretzat ere, pertsona maitatua da.

EESTEK ESA1/41,4

"Mutil jatorra, noblea, oso langilea eta lagun lagun handia." AGUSTIN UNZUETA `Moskotez, laguna.





ctoria Miquele, 44 urteko elgoibartarra, Bartzelonan bizi da gaur egun. Erizantzza ikasketak Donostian amaitu ondoren, 24 urterekin Bartzelo-

nara joan zen espezialitate kurtso bat egitera. Ikasketak bukatu ostean, ospitale batean lana topatu eta Bartzelonan geratzea erabaki zuen. Berak esan digunez, ez zaio hiri handietako bizimodu gehiegi gustatzen, "hiri handietako giza harremanak oso hotzak dira. Nahiago dut herri txilietako giroa eta danok elkar ezagutzea. Hori dela eta, ahal dudanean hiritik irtetzen saiatzen naiz. Hirian bizi garen gehienontzat behar bat da asteburnetan hiritik irtezea". Txinindularitza izugarri gustatzen zaiola aipatu digu, "zinea, sukaldaritza eta yoga egitearekin batera, zikloturismoa da nire zaletasun nagusia". Transpirenaika bizildetan egina duela aipatu digu, "Donostiatik Bartzelonara bizikletaz zeharkatu nituen pirineoak, eta elgoibartarrak ere topatu nituen bidean". Bestalde, Bartzelonako hizkuntza eskolan euskara ikasten ari dela esan digu, "gaztetan ez nuen ikasteko aukerarik izan, eta urte askoan Euskal Herntik kanpo izan naizenez, bertako kultura berreskuratzeko aukera paregabea da. Irakasleek hizkuntza irakasteaz gain, euskal kulturaren inguruko gauza mordo azaltzen dizkigute, oso jatorrak dira. Kataluniarrak ere joaten dira klaseetara, kuriositateak bultzatuta joaten dira gehienak".

**ANK**

VIAJES **BILBRO EXPQESS** BIDAIAK

**bidai agentziak babestutako atala**

Foruen enparantza, 3  
Te1: 943 74 39 12


## Maria Odria Osoro (1911-1990)



.1911ko otsailaren 2an jaio zen Lanuskain bailarako Damukorta basenian. 6 anai-arreba izan ziren, bera gazteena.

- Neska koskoma zela Markina-Xemeinen egin zituen ikasketak batzuk, eta baserrian lagundu zuen. Zoritxarrez, aita gazterik hil zen eta familia guztia Elgoibarko San Roke bailarako Guena-Etxeberri basenira etoni zen bizi izatera duela 80 urte inguru. Bertan egin zioten aurre bizimoduari.
  - Hemen ere basemiko lanak egin zituen familia-koekin. Gainera, goizean goiz jaikita sanitan joaten zen kalera bere amarekin esnea eramane, saldu eta erosketak egitera. Umoretsua zenez jende guztia agurtu ohi zuen.
  - Lagunekin San Isidroko, San Lorentzeko... erromerietara joaten zen. Anna Mariaren kongregazioa zen.
  - Madarixa bailarako Lugarixa baserriko Esteban Larrafiagarekin ezkondu zen Azkoitiko Eper kalea eta 3 seme-alaba izan zituzten: Sabin, Luis eta Mari Tere. Suhiak, beniz, Lurdes Uriguen, Dolores Iriondo eta Antonio Armendia.
  - 1936ko gerratean, senarrik gabe, Mariak abarkeak josten egin zuen lan, eta laster etorri zen familia guztia Elgoibarko Errosario kalera.
  - Mariak "De la Cruz"eneko traperian egin zuen lan. Sarritan aritu zen emagin lanetan ere, Tomas Zubizarreta sendagile jaunak deituta. Emakume borondatea eta jator honek, gogokoa zuen gaixoak bisitatzea.
  - Ezaguna zen herrian. Andre atsegin hau ongi bizi izan zen luzaroan. Familia girokoa, sinesmen handikoa eta zirazoa zen.
  - Bere zaletasunak euskal kantak, paseatzea eta ia-gunartea ziren. Jubilatuta etxera ere gustura joaten zen.
- e Maria 1990eko otsailaren 2lean hil zen 79 urte zituela.

**Juanito Gorostiza**



**Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua**

943 20 35 15  
Vy ABERIAK 943 20 31 25  
Bista Edor, 11 (sotanoa)  
43 20600 EIBAR



Pedro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOIBAR



*Ezkerretik hasita: Begoña (zerbitzari azpeitiarra), ezezaguna, liziar (zerbitzari itziartarra), Mammo Wolde, Maria Jesus Urain, Juanita (zerbitzari-zumaiarra), ezezaguna, Maritxu Urain eta ezezaguna.*

**A**ste honetako erretratu zaharrak Maritxu Urainek laga dizkigu. Bi argazkiak Juan Mugerza krosaren ingurukoalc dira. Bietan protagonista nagusia Mammo Wolde etiopiarra da. 4 aldiz irabazi zuen Mugerza krosa eta oso maitatua izan zen Elgoibarren. 1968. urtean 'Txarriduna' jabetxean ateratako argazkiak dira eta urte hartako lasterketako garailea, nola ez, Mammo bera izan zen. 1963. urtean etorri zen lehen aldiz Elgoibarrera, bera izan zen, hain zuzen, Mugerza krosean parte hartu zuten lehenengoetariko atzerritarra



*Ezkerretik hasita: mo Wri/dolik Teresa Artola Urain, ezezaguna eta Imanol Urain Mendikute.*

## "Bartzelonan aurka jokatzia Illentzerore erregalua izan zan"



### Unai Arrieta

- Adina: 19 urte.
- Postua: Hegalekoa.
- Gustuko eskubaloijokalaria bat? Rafael Guijosa Bartzelona taldeko hegalekoa.
- Talderik onena? Bartzelona
- Altuera: 84 em.
- Pisua: 86 kilo.

### • Zikloturisten irteera urtarrilaren 23an

Elgoibarko Lagun Taldeak aurtengo hirugarren zikloturista irteera antolatuko du. Datorren igandean, hilaren 23an, izango da irteera. Goizeko 10:30ean Txankakua zubitik hasi, eta honako hau izango da egingo duten itzulia: Deba, Mutriku, Ondarru, Lekeitio, Ondarru, Mutriku, Deba, Elgoibar. Guztira 74 km dira. Nahi duenak parte har dezake.

**-C.D. Bidasoa eskubaloitaldearekin Asobal Ligan debuta egin berri duzu. Nolako esperientzia izan da?** Dominguez taldekidean lesioak eman zian *Cadagua Galdar* taldean aurka debutatzeko aukeria pasa dan abenduaren 11n, Kopa txapelketa jokatzeko derrigorrez irabazi biharreko partidua zan eta Artaleku jendez bete zan. Irabazteko presiva zauan eta ez zan debutatzeko partidurik egokixena izan. Nahiko urduri egon nintzan, baina aurreko astia izan zan txarrena. Egunkarixetan azaldu arte etxian ez nabari ezer ere esan presiva ez gehitzeko. Hala ere, partiduan nahiko ondo moldau nintzan.

**-Debutatu bakarrik ez, golak sartzen ari zara eta hegaleko postua zureganatu duzu, ezta?** - Guztira 3 partiduko jokatu ditzut eta nahiko gustora naio indako lanakin. Hala ere, Frdntziako selektibaz aurkako lagunarteko partiduan be-lanuan min hartu nabari. Aurre-denboralditxik nauzkan molestiak, baina momentu txarrian Iesionau naiz, taldean leku hartzen ari nintzan.

**-Zer sentitzen da Bartzelona moduko talde baten aurka jokatzeko?**

- Gabon inguruan euki nabari Bartzelonan aurka jokatzeko suertia. Olentzeron erregalua izan zan gaur egungo talderik onena aurka jokatzia. Palau Blaugranan aritzia, Nou Camp edo Bernabeun jokatzia modukua da. Esperantziakin jun ginan, baina erreztasun osoz erakutsi zaben euren nagusitasuna, beste dimensio batian daude. 5 urte darue etxian partidurik galtzeke.

**-Zer izan da Asobal tigitik gehien harritu zaituena?** Jokua berdina da, baina jokalarixak haundixauak, indartsuauak eta azkarrauk dia. Gehixen hai Titxu nauana atezainek jaurtitzailiekin jolasian ibiltzen diala izan da eta ez alderantziz. Berak eskaintzen dizu baloia nondik bota eta zein angulotatik.

**-Zer ezaugarri behar ditu hegaleko jokalaria batek?** - Nahiko postu zaila da. Beste jokalariek baloia noiz pasatuko menpean zaude. Jokuan parte hartzeko aukera gitxi izaten ditzugu, baina ditzugunian ezin dou hutsik ein. Hegaleko on bat izateko; trebetasuna, wkartasuna eta eraginkortasuna bihar dia. Gol aukeretatik %70a gutxinez gauzatzia, alegia.

**-Eskuhaloian hasi zinenen atezain postuan aritu zinen, ezta?** - Joku eskolant-tan futboleko atezaina nintzen eta baita eskubaloira pasa nintzenen ere. Arraten nere entrenatzailea izan zenak, Victor Debek, jokalaria moduan jokatzeko esan zian hehin. Zeozer ikusi zian itxuria, eta atezain izatiari lagarzeko esan zian. Gero, Anaten jokatu nabarian asko ikasi nabari Victorrekin. Asko zor diot.

**-Duela 3-4 urte zuen maila berreskuratuko al du berriz ere Bidasoak?** - Zaila izango da. Elgorriaga babeslearen dirua funtsezkoa zan puntako taldia osatzeko. Momentuko jokalaria onenak pasau zian Bidasoatik eta jendia garai haietara ohitxu zan. Hori dala -ta, oso zaletu zorrotzak dia, batez ere galtzen dogunian. Talde gaztia osatzen dogu eta aurrera begira egiten dugu lan. Nahiz eta bitartean ateratzen diren aukerak aprobe-txatzea izan gure helburua.

## Itzargi Monasteriok irabazi du Elgoibarko Arkuzko Tiraketa Txapelketa poleazko modalitatean

Zarta Arkulari Elkarteko Itzargi Monasterio (argazkian ezkerrean) izan zan pasaden domekan, hilaren 16an, Kiroldagian jokatu zen Elgoibarko Arkuzko Tiraketa Txapelketako irabazlea poleazko modalitatean. Izan ere, 3 modalitate egon ziren eta elgoibartarrak poleazko modalitatean aritu ziren. Kirolo minoritario hau Elgoibarren ikusten den lehen aldiaz zenez, jende asko inguratu zan kiroldegira kuriositateak bul-tzatuta. 18 metrotara zegoen jopuntuari 60 gezi bota ostean, Ramon Blanco "Txuri" elgoibartarra eta Itzargi sailkatu ziren poleazko modalitateko finalera. Finala Itzargik irabazi zuen. Euskal Iigari zegokion 4. saioa izan zan Elgoibarko. Liga bukatzeko 2 saio falta direnean, Itzargi lehena da sailkapen nagusian eta "Txuri" bigarrena. Huenngo saioa Bilbon izango da.



# Hilak 23, 57. Nazioarteko Juan Mugerza krosa Abel Antonen eta Martin Fizen arteko lehia Mugerza krosean ikusgai

Emakumezkoen lasterketak inoiz eduki duen mailarik altuena izango du

**T**hoba irabazteko aukera gutxi izan arren, Abel Anton eta Martin Fiz marathoilarien arteko lehiak girotuko du aurtengo Mugerza Krosa. Biak ari dira Sydneyko Olinpiada prestatzen eta igandekoa bien arteko lehia polita ikusteko aukera izan daiteke. Astelehenean, hilaren 17an, egin zuten 57. nazioarteko krosaren aurkezpena Ego-Toki Elkarteko arduradunek. Bertan, krosa aurrera ateratzeko inoiz baino arazo gehiago izan dituztela aipatu zuten. Babesleekin izan dituzten arazoei, korrikalarien zerrenda osatzeko izan dituztenak gehitu behar zaizkie. Izan ere, Keniako Txapelketa Militarra dela-eta, herrialde horretako ordezkari asko ezin izango dira Elgoibarren izan. Hala ere, maila handiko konikalariak etorriko direla aipatu zuten. Faborito argirik ez dago, baina Evans Rutto, David Kimei eta James Moiben keniadek eta Karo Keska britainiar gazteak maila bikaina erakutsi dute orain arteko lasterketan. Bestalde, azken orduko fitxaketa-



Juan Mugerza Krosak 14 milioitako aurrekontua izango duela esan zuten Ego-Toki Elkarteko ordezkariak astelehenean, hilaren 17an, izandako prentsaurrekoan.

ren bat egon daiteke. Iadierazi zuten Ego-Tokiko ordezkariak.

### Maila bikaina emakumezkoen lasterketan

Emakumezkoen lasterketak inoiz izan duen mailarik altuena izango du aurtan. Yimnashu Taye eta Worknesh Kidane etiopiarrek dira faborito nagusiak, baina Julia Vaquero (97ko irabazlea), Luisa Larraga eta Rocío Rios espainiarrak, Rose Cheruiyot keniada eta Seloua Ouaziz marokoarra kontuan hartze-ko lasterkariak dira.

## Etxaniz eta Erauskin izan dira San Anton Pilota Txapelketan labazleak



Pilotariak, antolatzaileak, agintariak eta babesleak agertzen dira argazkian.

eta Erauskinetik partiduari buelta eman eta 22 eta 14 irabazi zuten, gehiago zirela erakutsi ostean. Jokalad onenaren saria Etxaniz aurrelari azkoitiarrak irabazi zuen. Bestalde, promesa mailako txapela Etxabe eta Bengoetxea eibartarrek jantzi zuten. Beraz, iazko irabazleek garaipena errepikatu zuten.

Aurreko ostira leian, hilaren 14an, Lagunak Pilota Eskolak antolatutako San Anton Txapelketako finalak jokatu ziren Ikastolako frontoian. Frontoia pelotazalez bete zen eta nahiko ikuskizun polita ikusteko aukera izan zen. Nagusien mailako finala, Etxaniz azkoitiarrak eta Erauskin Lemoarrak irabazi zuten. Yañiz eta Martinez de Eulate nafarren aurka neurtu zituzten indarrak. Partiduaren hasieran nafarrek tantu batzuren alde lortu bazuten ere, Etxaniz

### EMAITZAR

#### Areto Futbola

Araba Elxea 2- Zur Ta Lur 4 (Autonom.)  
Promocienes Sukia 2- Zur Ta Lur 1 (1. maila)

#### Eskubaloia

Pageaga Elg. 10 - ArraM Amafra 6 (Kad. nes.)  
Gaur Elg. 26 - Leizaran 13 (Kad. mut.)  
Urola Lazti 1B - Tecnomeca Elg. 18 (Kad. mut.)  
Unceia Elg. 24 - Arrate Amarta 14 (Jub. nes.)  
Aloña Mendi 1B - Pneumax Elg. 24 (Jub. mut.)  
I.M.S Elg. 28 - Elerno 20 (Senior nes.)  
Hernani 19 - I.M.H. Elg. 37 (Senior mul.)

#### Pilota

##### SAI Aññ ON TKAPELKETA (Finalak)

Elyabe/Bergoetxea 22 - Aro/Garcia 15

##### (Promesak)

Yanizarilartinez de Eulate 14 - Eiyantz/Erauskin 22 (Nagusiak)

##### GIPUZKOAKO TALDEKAKO DAPEKETA

Ansola/Balzola 16 (Lagunak) -  
Ebrabe/Bengoetxea 22 (Eibar)  
Loiolaazia 22 (Lagonak) - Viena/Lesmes 7 (Beloki)

#### Idarraga Kateak 2. saria

#### HAUNDIko jokalarierregularrena 99/00 JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Aranbarri .....	29
2- Zulaika .....	28
3- Castro .....	25
4- Polo .....	21
5- Diaz .....	15
6- Alberdi .....	11
7- Bravo .....	13
8-1. Leonardo .....	12
9- Ibaduza .....	11
10- Castillo .....	11
11- LÖrefi .....	10
12- Bague .....	8
13- Guarrotxena .....	6
14- Ru iz .....	5
15- Manolo Ramos.....	4
16- Alkorta .....	4
17- Txasio .....	4
111- Caro .....	4
19- Edu .....	4
20- Fernandez .....	2
21- Mikel .....	2

### AGENDA

#### Areto tubcda, Kiroldegian

Ostirala, 21  
22:10 Zur Ta Lur - Lauburu (1. maila)  
23:10 Zur Ta Lur - Ondarre (Autonom.)

#### Fubola, Mintxetan

Ilarunbata, 22  
15:00 Elgorbar - Allero (1. erreg.)  
17:30 Haundi - Tolosa (3. maila)  
Igandea, 23  
15:30 Elgoibar - Sto. Tomas Lizoea (Oho. ini.)  
17:00 Elgoibar - Aurrera Vitoria (Neskak)

#### Eskubaloia, Kiroldecrion

Ilarunhata, 22  
16:00 Gaur Elg - Almen (Kad. mul.)  
17:30 Pneumax Elg. - Leizaran (Juh. mut.)  
Igandea, 23  
10:45 Tecnomeca Elg. - Egia Joggers (Kad. mut.)  
12:30 I.M.H. Elg. - Iraundi Bergara (Senior mut.)

## Gorka Mujika Durangoko musika banda zuzentzen hasi da

Bere estilo eta gustu musikalak fandu nahi ditu banda bizkaitarrean

*Gorka Mujika musikari elgoibartarra urtarrilaren 6an, Errege egunean, estreinaldia izan zuen Durangoko Musika Bandaren zuzendari bezala. Gorkak adierazi digunez, Durangon zuzendutako lehenengo kontzertuan "oso gustura" aritu zen "gustatzen jata bandia dirigitzia eta gustura egon nintzan".*

Urtea hasi aurretik ekin zion elgoibartarrak bere zeregin berriari. "Lehen zauan direktoriari gauza asko zitxuan itzeko eta laga in zaban. Asteazken baten deitxu ziaten eta ostegunian eurekin bileria euki eta ensaiatzeko hasi ginan".

Gorka, aurretik ere ibili da zuzendari lanetan, Elgoibarko Kontserbatorioko Gazteen Bandako zuzendaria baita. Andoaingo Bandaren sorreran ere parte hartu du. "Ez naiz hutsetik hasten. Hemen piska bat ikasi dot eta Andoainen ere zertxobait eginda daukat" aitortu digu. "Honek responsabilidade gehixo daka, baina interesgarria da. Hilabete baino piska bat gehixo daruat eta gustora nabil. Gero eta hobeto nabil, gero eta gusturao, jendia ezautzen ari naizelako" gehitu du.



*Gorka Mujika ez dabil estreinakoz zuzendari lanetan, Elgoibarko kontserbatorioko gazte bandaren zuzendaria delako.*

Orain lan ezberdinak tartekatu beharko ditu, Elgoibarren eta Andoainen musika irakaslea eta perkusio jolea ere badelako. "Lanean gainezka nabil oin, baina dirigitzia, irakastia,

umiekin ibiltzea eta jotzia, gustatzen jatanez, oso gustora naio. Ni musikua naiz eta jotzia ederra da. Elgoibarko Bandan, Donostiako banda batian eta orkestra batian nauanez, aukeria dakat jotzeko. Orduan, gustatzen jata nabil".

### Pelikuletako doinuak

Momentuz kontzertu bakarra eman du Durangoko Bandak zuzendari berriarekin, Errege Kabalgatan parte hartzeaz gain. Aurrerantzean hilabete behin eskainiko dituzte emanaldiak. Gorka, bere ukitua ematen ahaleginduko da. "Bakoitzak banda bat eramateko era bat dauka. Nik gustu musikala batzuk dauzkat eta horiek transmititzen saiatuko naiz. Neri pelikuletako musika asko gustatzen jata eta orduan, hori landuko dogu. Gero, dirigitzeko era bat ere badak". Bukatu aurretik, hurrengo kontzertuko abestiak zeintzuk izango diren aurreratu dizkigu: "La Mision", "El rey Leon", "Titanie", "El bueno, el feo y el malo" filmeko E. Morricconeren doinua, Henri Manciniren beste bat eta "Evita"- filmako "Don't cry for me Argentina".


## Datorren igandera arte ikusgai dago Kultur Etxean Elgoibarko Filatelia Ekartearen XX. erakusketa

Wilaren 23ra arte, igandera larte, zabalik dago Kultur Etxean Elgoibarko Filatelia Elkarteak antolatutako XX. zigilu erakusketa. Bertan, zaleuek, gai ezberdinei buruzko makina bat zigilu dituzte ikusgai. Musika Euskal Herrian, zirkua, Txina, zubiak, animalia prehistorikoak edo Tunez dira, besteak beste, agertzen diren gaiak. Erakusketa joan zen larunbatean, hilaren 15ean, inauguratu zen. Aurrez, Ansolatarrek, 'Txanbolin' moduan ezagunagoak, omenaldia jaso zuten. Plaza



*Filatelia Elkartearen erakusketaren inaugurazio ekitaldian Ansolatarrek oroigarriak jaso zituzten, urte luzetako lanarengatik.*

Handitik Kultur Etxerako bidea Udal Txistulari Bandaren eta Haritz D.T. ren laguntzaz egin zuten. Ondoren, Elgoibarko Filatelia Taldeak omenaldia egin zien. Elkarteak, Ansolatarren dinastiari buruzko zigilu berezia kaleratu du aurten. Izan ere, lehen Ansolatarra duela 200 urte jaio zenetik urteotan hogeita bat txistulari eta atabalari eman dizkio Elgoibarko dinastia ezagun honek. Azken aste bukaera honetako ordutegia honakoa da: ostiralean, 19:00etatik 21:00etara, eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.



# k.O. 1 IRIIONDO

**1** Merezi al du bizitza? Eta Elgoibarren bizitza? Oztopo asko eduki ditzakezu, baina merezi du. Gainera Elgoibarren bizitzaekirt oso gustura nago.

**2** - Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batekin? - Bizitza jasan ezin izango balu eta berak nahi izanez gero bai.

**3** - Hil eta gero? - Ez dakit, ikusiko da.

**4** - Lehenengo ni eta gero besteak. - Ez litzateke horrela izan behar, baina errealitatean hala gertatzen da.

**5** - Nori kontaktzen dizkiozu

arazoak? Lagunei eta ahizpari.

**6** - Zein da zure bizitzako ambizioa? Eta bizioa? - Ambizioa pozik bizitza. Bizioa, berriz, jatea.

**7** Sinesten al duzu politikan? Eman al zenuen botorik? - Ez dut asko sinesten, baina botoa emateko adina daukadanean botatzera joango naizela uste dut.

**8** Noiz joan zinen azkenekoz manifestazio batera? - Duela gutxi, presoen aldeko manifestazio bat izan zen.

**9** - Euskalduna naiz eta harro nago? - Bai, oso harro

**10** Zerk galerazten dizu loa? - Ez dit ezerk galerazten, normalean ondo egiten dut lo.

**11** Joaten al zara Gazte-txera? Bai, sanitan eta oso gustura egoten naiz bertan.

**12** Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? Piska bat besterik ez, baina hori normala da.

**13** - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? - Ematen didaten konfiantza eta askatasuna. Gutxien, ez dakit zer esan, dena dut gustuko.

**14** Laguntzen al duzu etxeko-lanetan? - Oso gutxi. Zerbait egitekotan nire logela jaso eta noizean behin platerak garbitzen ditut.

**15** - Ondo pasa al daiteke alkoholik gabe? - Bai.

Batzutan alkoholarekin baino hobeto pasa daitekela esatera ere ausartuko nintzateke.

**16** - Irakurri duzun azken liburua? - Orain 'Las cenizas de Angela' liburua ari naiz irakurtzen.

**17** - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? - Maitasuna sexurik gabe. Sexuak maitasunik gabe, niretzat behintzat, ez dauka zentzurik.

**18** - Birjinitatea traba ala bertutea? - Ez bata eta ez bestea.

**19** - Homosexual batek maite zaituela esango balizu? - Hasieran harritu egingo nintzateke, baina berarekin ongi konpontzeko ahalegiak egingo nituzke.

**20** - Sinesten al duzu betiko maitasunean? - Bai, posible dela uste dut.





• **Mendaroko bertso eskoian Izena emateko epea zabalik**

‘Txirristaka’ bertso eskola naartxan jartzeko asmoa dute Mendaron. Hasiera baten, bi talde egiteko asmoa dutela adierazi digute: batetik, 9 eta 14 urte bitarteko ikasleekin osatutako taldea; bestetik, 15 urtetik gorakoena. Alain Ula- zia mendarotarra izango da irakaslea. Eskolak otsailetik aurrera izango dira astean behin. Izena eman nahi duten guztiek 943 75 52 35 telefono- ra dei dezakete, edo beste- la Mendaroko ‘Morroskilo’ dendara zuzendu.

• **Nathalia Elgoiharko abeslariaren kantaldia Herriko Antzoklan**

Gaur, hilak 21, Nathalia abeslari elgoibartarrak kantaldia eskainiko du gaueko 22:30ean, Herriko Antzokian. Silvia Hernandez pianojoleak Iagunduko du Nathaliaren kantaldia eta Arlenek prestatutako koreogra- fiek alaituko dute saioa.

• **Drogomenpekotasunaren prebeniziorako hitzaldiak gurasoentzat**

Elgoibarko Institutuak drogomenpekotasunaren preben- tziorako hitzaldiak antolatu ditu gurasoentzat. DBHko 1. 2. eta 3. mailako ikasleei zuzendutako ‘Hordago’ progra- ma ari dira burutzen institutuko irakasleak. Hori dela-eta, osagarri gisa, gurasoei zuzendutako bi saio antolatu dituz- te. Hitzaldien helburua, seme-alaben portaeran eragin po- sitiboa izateko, gurasoen komunikazio gaitasunak bobet- zea da. Lehenengo hitzaldia, urtarrilaren 25ean, izango da, bigarrena, berriz, urtarrilaren 27an. Biak arratsaldeko 18:30ean izango dira Institutuan.

• **Dantza ikastaroak ‘Azkenar Dantzalekuan**

Urtarrilaren 24tik aurrera hainbat dantza mota ikasteko aukera izango da ‘Azkena.’ Dantzalekuan. Astelehenean, hilaren 24an, saltsa ikastaroa hasiko da Arlen iralcasleare- kin. Hilabeteko ikastaro intentsiboa izango da, eta taber- netako zerbitzariei zuzenduta dago. Dohainik izango da. Astearteetan, berriz, erritmo latinoak irakatsiko ditu Arle- nisek. Asteazkenean, Natalio irakasleak Saloiko dantzak irakatsiko ditu. Azkenik, ostegunetan, Sevillanak ikasteko aukera izango da Juani irakaslearekin. Ondoren, Arlenisek erritmo latinoak irakatsiko ditu. Interesatuok honako tele- fonora dei dezakezue: 630830222.

• **Santa Ageda hezperako diru-eskea baserriz baserri**

Elgoibarko Izarrakoek esan digutenez, otsailaren 4an, os- tiralean, Santa Agedaren omenez baserriz baserri koplak kantatuz eta dirua eskatuz arituko dira. Aurten koplak dituzten baserri-auzoak honako hauek izango dira; San Migel, San Pedro, San Lorentzo, San Roke eta Urruzuno. Arratsaldeko 14:30ean hasiko dira baserriz baserri. Amaitu, San Migeleko soziedadean egingo duten afariarekin amaituko dute. Koplariariak, German Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaiza izango dira eta trikitilariak, berriz, Bal- tzoIa anaiak eta Ekaitz eta Arantza. Koruan parte hartu nahi duten guztiek 943 74 16 26 telefonora deitu behar du- te otsailaren 1 a baino lehen.

• **Larimbatean, urtarrilaren 22an, igerilekua itxita egongo da arratsalde**

Udal Kirol Patronatuak bihar, larunbata, hilak 22, igerilekua arratsalde itxita egongo dela jakinarazi nahi du. Istearen arrazoia zera da: eskola arteko igeriketa txapelketa jokatu dela.

• **Masalea eta Reiki ikastaroak**

‘Surya’ belardendak masaje eta Reiki ikastaroak antolatu ditu. Reiki ikastaroa urtarril- aren 29an eta 30ean izango da. Bertan diplorna eta liburu banba banatuko dira. Reiki- kiak gorputzeko arazoak konponbide naturalak erabi- liz konpontzen ditu. Bestalde, masaje ikastaroak 10 larunbatetako iraupena izango du. Urtarrilaren 22an hasiko da eta eskolak goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara izango dira. Interesatuok honako telefono hauetara dei dezakezue: 943 74 25 34 edo 626 74 50 24.

**11 21i1W1**

**FARMAZIAK**

Eguez Guez  
22 Yudego Escala  
23 Yudego Escala  
24 Bidasolo Bidasolo  
25 Etxeberria Etxeberria  
(Santa Ana katean)

26 Fernandez Fernandez  
27 Yudego Yudego  
28 Zabaleta Zabaleta  
\*(eguerdiko 2ak arte)

**ESCALA:** Rekalde, 1  
Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**J. IGNACIO FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4,  
Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9  
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

23 igandea Eizagirre

**ONGARRI**  
zine kluba



Zuzendaria: Colin Nutley.  
Antzezleak: Rolf Lassgard, Helena Bergstrom, Johan Widerberg.

**"Under the sunn**

1956. urtea, Suedia. Olof bakarrik bizi da bere baserrian. Erik, bere lagun gaztearen laguntza ezinbestekoa zaio, ez haitaki irakurtzen ezta idazten ere. Bakanik sentitzen dela-eta, Olofek etxeakoandre bat eskatuz iragarki bat jarriko du egunkarian. hagar- kiari erantzunez, Ellen azalduko da Olofen baserrian. Ellenek 34 une ditu, hirian bizi da eta oso ederra da. Olof eta baita Erik ere Ellenez malteminduko dira. Pelikulak hiru- ren arteko erlazioa aztertzen du.

## Lana

### \*ESKAINIVA\*

- Neska euskalduna behar da hi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoa beharrezkoa. tr 943 74 41 19
  - Larunbatetan tabernako sukaldetan laguntzeko neska behar da. r 943 74 37 71
  - Sukaldaria eta kamarera behar dira tabeman lan egiteko. It 943 12 73 34
  - Goizez etxeko lanak egiteko eta ume bat zaintzeko emakume bat behar da. tr 943 74 10 92 (20:00etatik 22:00etara deitu)
  - Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Tt 619 58 34 09 (gauzez deitu)
- Tabernan lan egiteko neska behar da, tr 943 74 18 24

### • ESKAERA •

- Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Gauzez nahiz egunez. v 943 74 27 78 (Itziar)
- Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. tr 943 74 29 73 (Andone. Goizez deitu)

## Salerosketak

- Boxer arrazako txakur-kumeak [salgai. Pedegrearekin.](#) tr 696 05 73 46
- Eskiak eta botak salgai. tr 943 74 18 55 (Gauzez deituz)
- *Baldascumli* markako botoidun soinu salgai. 120 baju eta sistema konbentorea. IT 943 74 15 29 (Lorea)
- Gitarra anplifikadorea salgai. Hasi berrientzat aproposa. 10 W. Prezio onean eta nahiko berria. 13- 943 74 13 97 (Ander)
- Plater garbigailu industrial salgai, prezio onean. tr 630 44 50 10
- Sega master System-a salgai, joku bat opari. tr 943 74 08 85
- *Silver Cross* haurrentzako aulkitt salgai. Egoera eta prezio onean. m 943 74 37 82 (19:00etatik aurrera deitu)

## Etxebizitzak


- Etxea alokatuko nuke Elgoibarren. 3 gela edo 2 logela eta egongela tr 696 47 16 95 (Manu)
- Bergarako erdigunean etxea salgai. w 943 76 54 24 (gauzez deitu)
- Etxebizitza (garajea+ganbara) salgai Basarte Kalean. Eraikitzeaz. Lehen eskuko. v 943 86 52 17/ 943 74 20 84
- Etxea alokatzen Is 943 74 09 74 (Lurdes)
- Pisua behar dut alokairuan. tr 943 74 04 86
- Urasandi kalean logelak alokatzen ditut. Sukaldea eta egongela erabiltzeko aukerarekin. tr 943 74 03 93
- Etxebizitza salgai Santa Klaran. [3. pisua. Altzariekin.](#) tr 943 74 32 66
- Pisua salgai Santa Ana kalean. 10. zenhakian. Guztiz berritua dago. •tr 943 74 05 14/ 626 23 75 70
- Ileapaindegia alokatzen da Mendaron, tr 943 75 50 73.
- Auzoko taberna alokatzen da traspasorik gabe. m 649 60 46 66 (19:00etatik aurrera deitu)
- Etxea salgai Muguruza kalean. tr 943 85 08 92

## Partikularrak

- 6 urteko ume bati euskara irakaste pertsona bat behar da. As-tan 2 aldiz, ordubete. 7t 943 74 07 07 (20:00etatik aurrera deitu)
- 7 urteko ume bati klase partikularrak emateko euskaraz dakien pertsona bat behar da, lehen bailehetver 943 74 00 33 (Sara)
- Logseko 1. mailako ikasle bati matematika eta fisikako klaseak emateko irakasle partikularra behar da. tr 943 74 28 44 (20:00etatik aurrera deitu)
- DBIIko 4. mailako ikasleei matematika eta fisikako klaseak emateko irakasle partikularra behar da. Euskaraz. jakinez gero hobere. fr 943 74 08 46

## Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino tehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.



• Ze guapa zauden bi lazituekin. Aurten hi paitxatxo. Elgoibartik patxo haundi bat, Zorionak katalana,

• Zorionak Gorane Cidi, hila-ren 1 lan 8 urte bete zituelako. Aitaren, amaren eta here anaia Ekattzen partez.



• Zorionak Alexi, hila-ren 18an 7 urte hete zituelako. Amaren, Jonen, aitxatxo Felixen, amama Antonia-ren eta tío Txanpiren partez. Opari asko jasoko zenituela espero dugu.

• Zorionak aitxatxo, atzo 55 urte bete zentue-lako. Alexen eta familiaren partez muxu handi bat.



• Zorionak Ibon Goikoetxeari, bihar, hila-ren 22an, 4 urte bete-ko dituelako. Musu handi bat etxekoan eta bereziki anaia Aito-




ren partez.

• Zorionak Albar-t, 10 urte bete zituelako. Gelako lagun partez.



• Zorionak Lohitzunerri, IU urte bete zituelako. Gelako lagun partez.



• Zorionak Ion Intxausti De Luisi, hila-ren 22an urteak bete-ko dituelako. Familiaren partez.



## Bestelakoak


- Caritasek butanozko kalefakzioak behar dint. tr 943 74 40 49
- Gabon aurretik bideo zinta bat galdu nuen Ikastolan. tr 943 74 25 17
- Erlojua zintzilik duen zilarrezko kate bat galdu dut. te 943 74 01 50
- "La Uni6n" ehiza eta arrantza elkarteko 2 akzio salgai. tr 943 74 16 88 (Juan)
- 9 hilabeteko Kollie-artzai ixakurkume alemana oparitzen dut. tr 606 05 65 48 (Sara)

## Agurrak

- Zorionak Ander Gerenabarrenari, berandu izan arren. Barkatu ahaztu izana eta zorionak Ikastolako DBH lekoen partez.
- Zorionak Ibai Galarzari, hila-ren 14zut urteak bete zituelako.
- Zorionak Feliri, hila-ren 26an urteak beteko dituelako. Egun ona pasa dezazula eta lan gutxi egin. Familiaren partez.
- Zorionak Aurora Alvarezi, hila-ren 20an urteak bete zituelako. Familiaren eta bereziki alaba Lauraren eta Amaia-ren partez.
- Zorionak Josu Abadi, atzo, ur-tarrilak 20, 12 urte hete zituelako. Eider Perezen partez zorionak!



• Zorionak Yoanari, unarri-laren 12an urteak hete zituelako. Familiaren eta lonen partez zorionak.



• Aupa Jose, zorionak zure urte-betetzean, oso ondo pasa eta goxoki gutxi jan, e? Rosaren, Aitorren eta familiaren partez zorionak.




• Zorionak Miriarn eta Aitor Arosari, gaur 10 urte bete ditrrtelako. Gelakoen partez, ondo pasa.

Erreformak direla-eta denboraldiko arropa

# ERDI PREZIOAN

# ERROSARIO KALEAN




San Bartolome  
kalea

# % 50

**GARATE**  
**Jantzidenda**

San Bartolome, 1 3  
Tel. 943 74 11 29



# MULTIOPTICAS

## ZERBITZU OPTIKOETAN LEHENA



### *Bonardi bilduma*

**Denontzat**

**3.800 pta.n)**

22,84 Euro



Erref B0003



### *Betaurrekoak*

**60 urtetik gorakoentzat**

**8.900 pta.tik aurrera**

53,49 Euro



Erref.80006

Armazoa + Krisialak'



### *Giulio Tabacchi betaurrekoak*

**Gazteentzat**

**13.900 pta.tik aurrera**

83,54 Euro



Erref.GTV150

Armazoa + Kristalak\*



### *Lente Progresiboak*

**19.500 pta.tik aurrera**

117,20 Euro



[www.multipticas.es](http://www.multipticas.es)

**Multi-eskaintzak 1**  
**MULTIOPTICAS**

ZENBAT BURU

Ion Loiola

ERREPORTAJEA

Ume hiperaktiboak

GEHIGARRIA

KiliBARREN

# BARREN

2000ko urtoi-rilaren 280  
VIII. urtea - 306. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A F I A

BERBETAN

Maritxu

Agirregomezkorta,

Gurutze Gorriko

urteko kolaboratzailea

KIROLA

Nazioarteko

57. Mugerza

Krosaren kronika




Zuhaitz/ Gunutxegai

Realcan borrokatzeko gogoz

"Debuteko gauzarik txarrena txartel gorria izan zen" Zuhaitz Gurrutxaga

## UDAL EUSHALTEGIAK

ZURE. ETOKKIZYNA E-USKAKAZ



*Matrikula zabalik!*

## "DEBABE" UDAL EUSHALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Urtarrilaren 24tik otsailaren 11ra

		ARRATSALDEZ
2. URRATSA		14:45-16:15 egunero
4. URRATSA		14:45-16:15 egunero
8. URRATSA	9:00-11:00 egunero	15:00-17:00 egunero
10. URRATSA		15:00-17:00 egunero
EGA		17:30-19:30 egunero



DED1EE GIDAL ELISKALTEQIEN ReINICOMUNITATEA

ELGGIESAR · Natarroa · Enpararritza, 2 · Tel 943 74 27 31 E-posta.: elgoi.euskalfudal.gijuzismee@

Aretxabaleta · Arrasate · Azpeitia · Beasain · Ilegara · Deba · Elbar · Ergoibar · Errenteria · Eskariatza · Hernani · Handarribia · Irtri · Lasarte-Oria · Legazpi, Mutriku · Pasaia · Tolosa · Umieta · Urretxu · Zarautz · Zumarraga

# ZEZEN-BIDE

## A UTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi eta motorrentzako gida-baimenak



(1/4; rifr (M.r. ft(m fIM7  
Gazte rytiTiff:(r:fr;kin





ION LOIOLA

✓ dazten hasi berri naizen honetan, nire barruak hainbat gai interesgarri luzatzeko —deia egin dit. Hala ere, nire buruak ez du gogorik gai horiek azaltzeko, beharbada nazkatuta nagoelako hainbat gai defendatzen eta neuni batean, nire bizitzan pentsaera horiekin koherentzia gutxi azaltzeaz. Kristautzat daukat nire burua, Jainkoarekiko sinesmena sendotzen bide luzea egiten ari naiz, hala ere, oraindik askoz luzeagoa gelditzen zait eta ez dakit inoiz bidearen bukaera ikusiko ote dudan. Jesus erreferentzia bezala hartu dut eta neurri batean Jesusek berak sinestu izan zuen Jainko berean sinesten dudala nabaritzen dut.

Sinesmen honekin bat egiten duen bizitza estiloa jon•atzen ari naiz, hala ere, hutsune ugari nabari zaizkio.

Beharbada, bizi naizen gizarte honek edo gizartea nola eratua dagoen ikusteak arazo edo traba ugari jartzen dizkit.

Bestalde, gure herria eta mundua bere orokortasunean ikusteak nire barnean ez du zirra goxorik sortzen:

✓ Pobrezia gogorra (egunean 1500 milioi pertsonak dolar bat baino gutxiago jasotzen du).

✓ Munduan produzitzen denaren %100etik, munduko bizilagunen %20ak produkzioaren %85 kontsumitzen du. Besteei, hau da, bizilagunen %80ari produkzioaren %15 soilik utziz.

✓ E.A.E.an milaka familia egoera larrian bizi da.

✓ Haur askok mundu honetan bere haurtzaroa lanean igarotzen du.

- ✓ Hirugarren Munduko kanpo zorrak nazio hauen garapena erabat oztopatzen du.
- ✓ Hainbat haur eta nagusi beharrezkoak diren sendagaiak ez edukitzearren hiltzen da.
- ✓ Emakumearen zapalkuntza.
- ✓ Langabezia.
- ✓ Ordu estrak.
- ✓ Lan baldintza txarrak.
- ✓ Soldata urriak.

Mundu honetan eta gure herrian hainbat injustizia ikusten dira eta askotan begiak isten ditugu edo beste alde batera begiratzen dugu. Honela, justuak ez diren egoerek bere horretan jarraitzen dute. Idatzi honekin ez nuke ezer saldu nahi, behin nire lagun batek zera esan zidan: "Ez saldu zuk erosiko ez zenukeen ezer". Egia esan, sinesten dut egoera hauek guztiek irtenbidea dutela, baina hortarako munduko eta herriko biztanleriaren zati handi baten partaidetza aktiboa beharko litzateke. Honekin batera herri eta nazio bakoitzak egoera hauek zuzentzeko egiten duen politikak eragin garrantzitsua izango luke, hau da, aberatsak gehiago aberastu beharrean, pobreak pobre izan gabe duin bizitzeko apustua egingo balute. Honekin batera, beste injustizia guztiei aurre eginez.

Honetarako, lehenengo pauso bezala guztiok egin beharreko ariketa bat ikusten dut: Autokritika. Bestela nola ikusi ahal izango diot nire aun•ean dagoenari begiko lastoa eta hau kentzen lagundu, nire begikoa kendu gabe?

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratu dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

## Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

vr 943 74 41 12

Publizitatea:

zr 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

[www.ihardun.com/barren](http://www.ihardun.com/barren)

ARGITARATZAILEA Eigoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegia,  
Jon Eugi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maltane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRATZIOA Amaia MarIn

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Juanito Gorostiza,

Arnanz Gorrill, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura Sailak eta  
Foru Aldundiak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria,*



*gizarte-ekintza  
ohra social*

**4 DANOBAT**

**44 GOITI**  
GRUPO DANOBAT

## Ikastolako langileak presoen eskubideen alde

**E**gotbarko Ikastolako langileok eus-  
gal gizartearen gehingoarekin bat  
eginez, euskal presoak Euskal Herrira-  
tzea eskatzen dugu. Baita kondenaren  
hiru laurdenak beterik dituztenen bere-  
halako askatasuna ere. Legea eta giza es-  
kubideak errespetatu daitezzen.

Euskal Presoak Euskal Herrira orain.

**Ikastolako langileak**

## Ostiraleany Plazan 15 minutuz kontzentratu ñrenel

Veinen hilketarengatik protestatu zenu-  
Liten? ETAK hildako teniente koronela-  
rengatik, ala minutu batzuk beranduago  
poliziak hildako gaztearengatik? **Ez al ze-  
nekiten** 1)onba kotxeak eztanda **egin eta**  
gero poliziak ETAKideak **bilatu nahian**,  
ezer egin ez zuen 25 urteko gazte bati biz-  
karretik bihotzeraino tiro bat sartu eta hil  
zuenik?

Baldin bazenekiten, faxista hutsak za-  
rete. Ez bazenekiten, berriz, txotxongilo-  
ak. Lehenengoak ETArekin ekintza baten  
aurrean bakar bakarrik protesta egiten du-  
zue. Kasu honetan, bere tankeekin gure  
herrian sartzeko prest dagoen ejerzito ba-  
ten militar baten hilketarengatik. Bigatre-  
nak, marionetak bezala, botereak zuen ha-  
riak mugitzen dituenean, orduan mugi-  
tzen zarete.

Seguraski esango duzue giza bitzita  
preziatuena dela eta inork ez duela esku-  
biderik besteei kentzeko; baina 25 urteko  
gaztearen kasuan ez duzue ahoa zabaldu.

Bi pertsona horien heriotza, indarke-  
riaz, aldi eta leku berean gertatu ziren.  
Baina komunikabideek eta poli tikeek  
ahalegin guztiak egin dituzte hauetako bat  
ezkutatzeko; bestela, eguneko notizia  
apurtuko bailitzaieke. Horrela, gazte ho-  
rrek familia zuen ala ez, ez gara inoiz en-  
teratuko.

Baina azken finean, faxistak ala txo-  
txongiloak, denak hipokritak zarete, zeren  
eta Euskal Herrian hilketa asko gertatu di-

ra polizien edo GALen esku eta inoiz ez  
zarete irten horren aurka protestatzera.  
Orduan ez esan biolentziaren aurka zau-  
detenik; erresistentziako biolentzia kon-  
denatzen duzuen bitartean, indarkeria ins-  
tituzionala onartzen duzuelako.

Bukatzeko, gogoratu ETAK 20 urte lu-  
ze daramatzala negoziatzearako deiak luza-  
tzen eta Espainiako gobemuaren erantzun  
bakarra errepresio poliziala eta parapoliziala  
(GAL...) izan dela. 14 hilabeteko tregua  
honetan ere, argi ikusi dugu espainiarren  
jarrera: interlokutoreak atxilotu, gerra ziki-  
na (Geresta), abertzaleen aurkako erasoak,  
presoak eta beraien senideak zigortu...  
Garbi dago, beraz, zeinek ez duen nahi gu  
pakean bizitzea.

**Juan Karlos Marcos**

## Ego-Toki Elkartearen izenean eskerrak

**E**go-Toki Elkarteko 57. Mugerza  
EKroseko antolatzaileok eskenik be-  
roenak luzatu nahi dizkiegu aurtengo  
krosa egiten lagundu diguten guztiei.  
Batez ere, Elgoibarko Udalari, publizita-  
te bidez lagundu digutenei, BARREN  
astekariari, herriko lantegiei eta dendei,  
ibilbidean Ian egin duten guztiei, eta oro  
har Elgoibarko herri osoari. Datorren ur-  
tean ere zuen laguntzarekin honelako  
lasterketa bat prestatu ahal izango dugu-  
lakoan gaude. Mila esker.

**Ego-Toki Elkarteko  
Atletismo Batzordea**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK alaletan adierazitako erantzukizunik.  
Eskutitz guztiek ondo identifikaluta egon behar dute argitaratu ahal izateko.  
Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.





• Herritar batek Mugerza krosa bukatu ostean, Mintxetan pilatu ziren zakar piloak direla-eta kexatzeko deitu digu: "Lasterketa amaitu ondoren Mintxeta inguruko zelaietako zikinkeria ikusteak lotsa ematen zuen. Plastikozko poltsak, latak eta era guztietako zakarrak utzi zituen jendeak `ahaztuta". Igande goiza lasterketa on bat ikusiz eta hamarretako ederra eginez pasatzea moclukorik ez dago, baina bakoitzak bere zakarrak jasotzearen ardura hartu beharko luke".



## TXALOAK

• Herritar batzuk Zuhaitz Gurrutxaga txalotu nahi dute, "19 urterekin Realarekin debuta egitea ez da gauza makala eta egin zuen une eta moduan are gutxiago. Atlfieo de Madrid taldearen aurkako partidua ez zen batere samurra, baina gazte honek San Migelko kasta sobran duela erakutsi zuen zelaian. Hori dela-eta, zorionik heroenak eta jarrai dezala aurrera. Realak aurten bere kemenaren beharra izango du,-eta".

# MESAN?



## Pello Arrieta

Historialaria

*Kalannta mendiaren inguruan pirtat batzuek jasatzeko hmetan, trikuharri bat suntsitu dutela entzun dugu. Kalantua mendia exaguna da elgoibartarrentzat. Hori dela-eta guk Pello Arrieta historialariarengana jo dugu monumentu honen berri gehiago jakiteko asmoz.*

- Trikuharri bat suntsitu omen dute Kalamua aldean. Kalamua ondoran Diruzulo trikuharrian izan dira kalteak. Uda aurretik jadanik hasi ziren eskabadora sartzen eta lurra mugitzeaz zenbait harri ere atera dituzte. Interneten honen berri jarri ostean, agintariek bildu ziren eta baita bertara joan ere. Baina han kalterik ez dela egon esaten dute beraiek eta gertatutakoa izkututzen saiatu dira. Orain kamioien arrastoak ikus daitezke, hala ere, belarra laster ateratzen da eta apenas igartzen da han pasatutakoa.

- Nor izan da erruduna? - Gauza ez da errudunen bila hastea, prehentzio lana egitea da kontua. Horretarako, agintariek monumentu megalitiko hauek seinalizatu beharko lituzkete, gure ondorengoek beraien arbasoen berri jakin dezaten.

- Jendeak kontuan hartzen al du trikubarrien balio historikoa? - Jende anuntak muino txiki bat eta han i pilo bat besterik ez du ikusten, beharbada inork ez dielako azalpenik eman. Beraz, oroimen historiko hori kontserbatzeko agintariek trikuharriei bunizko informazioa jarri beharko luke Karakateko dolmenekin egin duten bezalaxe.

Zer egingo da arazo honen aurrean? - Kalteak ikusi ostean Interneten bidez informazioa zabaldu dugu eta orain egin daiteken gauza bakarra monumentuak zaintzea da. Elgoibanen bertan, ere Kalamua eta Hiruituni artean Olaburu izeneko turnulo bat dago eta egunen batean hura ere aurretik eraman baino lehen seinalizatzea komeni da.




**Ke 40.**

C\*\* p.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**



- IDAZMAKINEN SALMENTA eta KONPONKETA
- FOTOKOPIAK KOLORETAN FOTOKOPIADORAK
- ERLOJE INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- FAX

**MEKANOSA S.L.**

Errosario, 30 Tel: 943 74 02 84 Faxa: 943 74 36 19

## GOLTICGE DEL

**Enpanadak**

**Enbutidoak**

**Baserriko ogia**

**Bolleria**

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 s- 943 74 33 92

**Cordon, Vilarchao, c.b.**

**CVEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

# haur4i va1.10a1

*Aste honetako erreportajea haur hiperaktiboek buruz hitz egingo dugu. Gaixotasun hau ezezaguna izango da askorentzat, baina uste baino ohikoa da. Munduko Osasun Erakundearen datuen arabera, eskolako haurren %4a hiperaktiboa da. Hau da, bi gelako, haur hiperaktibo bat dago. Mundu mailako sindromea da, bilatu den tura guztietan aurkitu baita. Hala eta guztiz, oso informazio gutxi dago gaixotasun honen inguruan, eta guraso askok ez dakite beraien semeak hiperaktiboak direnik. Geldi egon ezin daitzekoen haurrak dira eta gaiztotzat edo bihurritzat hartzen dituzte ingurukoek. Garaiz antzeneztea funtsezkoa da pronostiko eta tratamendu egokiak bideratzeko. Duela hilabete gutxi ume hiperaktiboen Elkarte bat sortu zen Elgoibarren. Gitek beraiengana jo du-gu argibide*



*Haur hiperaktiboak ez dira egiten dituzten ekintzetaz jabetzen, ez baitute ondorioetan pentsatzen. Inguruan daudenak ez dira eroso sentitzen eta baztertu egiten dituzte ume hauek.*

ume gaiztoak eta gaizki heziak direla uste izaten da. Hala ere, haur "ipurterre" guztiak ez dira hiperaktiboak. Hortaz, profesionalengana (Onediku, sikologo eta pedagogo) joatea gomendatzen dute adituek, hiperaktibitate, hiperkinesia edo portaera arazoak diren argitzeko.

## *gazuha* arazoak

Hiperaktiboak ez dira egiten dituzten ekintzetaz jabetzen, ez baitute ondorioetan pentsatzen. Beraien jarrera eta ekintza ulergaitzen ondorioz, inguruan daudenak ez dira eroso sentitzen eta marginatu egiten dituzte. Bazterketa hau askotan jasan behain oso kaltegarria da beraiengantz, agresibo eta haserrekoak hihurtzen baitira. Zokoratu egiten dituztela nabaritzen, taldetik hanatzeko joera izaten dute.

## Portaera

### *al(tisathia*

Integrazio arazoaren eraginez, haur askok autoestima oso baxua dute, eta nerabezarora (adoleszentzia) iristean portaera antisozial arazoak izaten dituzte. Ikasketekin ez dira ongi moldatzen eta kurtsoa errepikatzea edo baxilergoa ez hukatzea ohikoa izaten da. Delinkuente gaztetxo gehienak haur hiperaktiboak izandakoak direla diote adituek. Gizarteko arauetara egokitze arazo larriak izateaz gain droga, tabakoa eta alkohola oso gazteak izanik probatzeko joera nabarmena izaten dute. Dena dela, pubertarora iristerako hiperaktibitateak desagertzeko joera du, nahiz eta hiperaktiboak izandako heldu eta nerabe askok gehiegi mugitzeko aukerarik ez duten lekuetan ezinezona nabaritu.

## Zer da

Ume hiperaktiboek 3 ezaugarri nagusi dituzte; arreta gabezia, geldirik egon ezina eta oldarkotasuna edo kontrolrik eza. Geldirik ezin egon hori dela eta, haurrak ezin du ezertan kontzentratu. Zangoak eta besoak etengabe mugitzen dituzte, ezin dira denbora luzez eserita egon, gehiegi eta zentzu gabe hitz egiten dute... ezaugarri hauek guztiak eta beste batzuk kontutan hartuz,

## &C,/&19

### buruhaustekak

Bi elpiahartarrekin berba egin dugu beraien esperientzia personala kontu diezaguten. Haurren intimitatea babestearren izenik ez jartzeko eskatu digute. Batek 7 urteko semea du eta besteak 11 urtekoa (gizonezkoengan emakumezkoengan baino maizago gertatzen da). Biak aldizkarietan irakurri zituzten entportajei esker konturatu ziren etxean haur hiperaktibo bat zeukatela. "Artikuluak irakurri orduko konturatu nintzan nere semian deskripziva eitzen zabalak. Aurrez umiak

zeozer zakala antzematen nion, baina ez naban inoiz hiperaktibua zanik pentsau. Etxian terremoto bat modukua zan. Urte eta erdi zitxuanetik edozein lekutara igotzen zan eta etxian gauza mordo bat apurtu ditxu, lanparak, bonbilak... egundokuak ein diguz. 6 urte zitxuanian eskolako

beste haunekin arazuek eukitzen hasi zan eta zeozer eitzeko momentua heldu zala pentsau naban. *Albor* psikiatra elkartian benī izan naban eta eurekin kontaktuan jarri nintzan. Nere semia hiperaktibua zala izan zan diagnostikua, baina maila bajukua, maila ezberdinak daoz-eta. Rubifen izeneko pastillak rezetau zizkien. 4 ordurako efektua dake, baina mesede ein diuela igarri dot eta oin nahika zentrauta dao". Beste haurraren amak azaldu digunez, "psikiatrarengana eramaten dut semea eta oso gustura nago emaitzekin, baina oso garestia da. Elkartearren helburuetako bat, gastu hauei aurre egiteko dirua hiltzea da". Hiperaktiboek lagunak egiteko arazok dituzte, baina ama hauek beraien kasuan horrelakorik ez dutela somatu esan digute. Bestalde, oso urne sentikor eta maitekorrek direla diote, "edozer esateko gai dira eta gauzak apurtzen dituzte. Hori dela-eta, gaizto fama izaten dute. Baina, konturatu gabe egiten dituzte gaiztakeria hauek, ez atentzioa bereganatzeko. Gaiztakeria egin ostean konturatzen dira egin dutenaz, eta barkamena eskatzen dute berehala".



**Montse Iraolagoitia,** psikologoa. Berak azaldu digu nola antzeman daitekeen haur hiperaktibo bat eta zein den beraien aurrean erakutsi beharreko jarrera.

### *Olotasula/46ff allfrazolal*

Ez da oraindik zehaztu gaixotasuna eragiten duten kausa zuzenak zeintzuk diren. Hereditarioa izan daiteke, buruko lesioek eragina, fetoak alkoholaren edo tabaloaren kalteak jaso izanaren ondorioz... Dena dela, gaur egun, kasu guztien %30aren jatorria bakarrik antzeman daiteke.

### *Ovasigel &ta ite-alad6e9tvid-ota*

Arauek finkatzea eta haurrari arau batzuk errespetatzen irakastea oso garrantzitsua da. Edozer egin aurretik dena argi azaldu behar zaie, baita gure helburua zein den ere. Deiar egin edo haserretu gabe egin behar da, bere autoestima ez kaltetzeko. Haurrarentzat ere laguntza handia da enespetatu behar dituen arauen berri izatea. Irakasleei dagokienez, arreta mantentzea asko kostatzen zaienez, ariketen luzeera eta iraupena moztea komeni da. Beraientzat espreski prestatutako ariketak behar dituzte, daukaten hiperaktibitate bideratu egin behar da. Bide batez euren autoestima igoz.

### *#atv- 4bettaltilaar-e9ar-lauba*

- Pentsatu gabe erantzuten du, galdera entzun baino lehen.
- Bere txanda izan arte itxaroteko zailtasunak ditu.
- Beste batzuen jarduerak eragozten ditu.
- Ez ditu arauak errespetatzen.
- Ez die xehetasunei erreparatzen, eta horregatik egiten du huts.
- Arretari eusteko zailtasunak ditu.
- Badirudi ez duela entzuten.
- Ez da esanekoa.
- Ez ditu eskolako eginkizunak betetzen.
- Arretaz egin beharreko jardueri muzin egiten die.
- Eskolako materiala sarritan galtzen du.
- Ct Huskeriek arreta galarazten diote.
- D Jarduera batetik bestera sarritan aldatzen du. Hasitako gauzak bukatzeko zailtasunak ditu.
- Eskuak, oinak... neurrigabe mugitzen ditu.
- Eserleketik altxatzen da eskola orduetan edota eserita egon behar lukeen beste egoera batzuetan.
- 1:1 Jauzi edo korrika egiten du behar ez denean.
- Gehiegi hitz egiten du.
- 1:1 Lasai jolasteko zailtasunak ditu.
- 1:1 Leku zailtara igotzen saiatzen da (5 hilabete dituenetik).

# Iure ustez, EHk ETAre atentatuak kondenatu egin beharko litzake?



**GILLERMO VICENTE**

35 urte, Telefonicako langilea

Bai. Orain daukaten paktuarekin eta jarrerarekin janaitzeko atentatuak kondenatu beharko lituzkete. Atentatuak oztopoak dira eta zabaldutako bideak itxi ditzakete.



**AQUILINO GARCIA**

56 urte, fresadorea

Bai. Alderdiak dituen ideak albo batera utzita, atentatuak kondenatu behar dira, bi aldeetakoak. Demokrazia defendatzeko bide hobekak badaudela tructitzen zait.



**MaLUIA ARANGUREN**

43 urte, etxeoandrea

Nere ustez kondenatzen ditxu, nahiz eta kondena hitza ez erabili. Hori norberak nola hartzen daban arabe-ra dao, gauza asko kondenau daitxezke.



**MATEO JIMENEZ**

67 urte, jubilatua

Nire ustez atentatuak eliminatatu beharko lirateke. Hala ere, guk kondenatu beharrean, beraiek zertan ari diren pentsatu beharko jukete.



**JOSEFA ZIALTZETA**

71 urte, etxeoandrea

Danok estimatzen dugu bizitza. Norbadi kenduz gero batzuek esan dezakete zerbait. Hala ere, partidu bakoitzak bereari custen dio eta hor dakoxxa.



**ANA EGUREN**

36 urte, irakaslea

Baietz uste dut. Denon iritzia azaldu behar da eta EHk zer pentsatzen duen ez badu kaleratzen, demokratikoak ez direla dirudi. Beraien jarrera aldatu behar dute.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.

ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETAR1K GABEI

904 erp autoom 014 tewlut 6 ottele/k,

*atoz informazio eske*

**ARRAÑAGA**

A U T O E S K O L

Tel: 943 74 10 11

- Kontabilitate

Lan

FiSkal



**URKIDI**

**AHOLKULARITZA**

**ITT ERCOS ASEGURROAK**

Kalamua, 12  
ELGOIBAR  
Tel-Faxa:  
943 74 18 91

**WITXO**

**ROCK-KAFEA**

0 San Frantzisko, 41 . Tel. 943 74 39 25



## Osa unean adituak

### GAIA:

### ESTRESA

**G**aurko gizartean santan borroka egin behar izaten dugu agintarien, ikasketen, auto gidari arriskutsuen... aurka. Berez arrisku larriak ez badira ere, sarritan estresa sortzen dute. Ez diegu aurre egiten, hori dela-eta, odolarekin batera estresaren ormonek askatu beharko lituzketen grasa eta glukosa ez dira ekintza fisikoa egiteko erabiltzen eta estresaren mekanismoan pilatzen dira. Tensioan jarraitzen dute, ez dira erlaxatzen, beraz, une konkretuetan martxan jartzeko sortu zen estresa uneoro agertzen da eta horrek honako ondorioak ekar ditzake:

✓ Odolaren presio altua, denborarekin giltzummatako filtrazio hodiak kaltetzen dituena.

✓ Glukosa erabiltzen ez denez, gorputzak insulina gehiago sortu behar du, horrek hipogluzemia edo diabetea ekar dezake.

✓ Lisetiketa aparatuan arazoak. Hori dela-eta estres kronikoak estomagoko ultzerak, beherakoa, idorreria, desnutrizioa eta koloneko minbizia eragin ditzake.

✓ Grasa odolean gelditzen da eta denborarekin, oxidatuz joan ahala paretetan gelditzen da arterioesklerosia sortuz.

✓ Glandula suprarrenalek gehiegizko lana egin behar dutenez, ahuldu egiten dira eta horrek ormonetan eragiten du.

✓ Sexu harremanetan arazoak egon daitezke, besteak beste, antsietatea.

✓ Sistema immunologikoa ahulduz joan ahala, infekzioak eta gaixotasunak errazago hartzen dira.

✓ Tentsioak sistema nerbioan eragiten du.

Horiek guztiak kontuan hartuta, oso nabarmena da estresak osasunari eragiten dizkion kalteak asko direla, beraz, horri aurre egiteko modurik onena ahalik eta lasaien bizitzea dela esan genezake.

### J. ZUAZUBIZKAR

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**Kemen** Belardenda (Medikuntza naturala, F. de 8ach, masaia, makrobiotika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda (Medikuntza naturala, iridiologia, masajeak, reiki, yoga. Klaseak egunero)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** (Optiko-optometriska)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

..... San Bartolome, 9 • Tet **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Ibiltzen**

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**hiaki Rivero**

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

### PSIKOLOGOAK

**Nare psikologoak** (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 2@ 05 95**

[Gida honetan agerku nahi baduzu, deitu **943 74 37 04ra**]

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeKo 943 74 41 12ra

## IARIGERN proiektua aurkeztu da Elgoibangarfu helduen euskalduntzea eta alfabetatzea susperlake

Egitasmoaren aurkezpena joan den larunbatean izan zen Udalarekin Pleno Aretoan

Joan den larunbatean, hilaren 2lean, Udaletxeko Pleno Aretoan aurkeztu zen 'Arigera' proiektua. Aurkezpen ekitaldian Guillermo Garate, alkatea, Iñasio Garmendia, Elgoibarko Izarrak lehendakaria, Izaskun Belategi, AEK euskaltegiko zuzendaria, Itziar Agirregomezkorta, Udal Euskaltegiatiko zuzendaria eta bi euskaltegiatiko ikasleak izan ziren. 'Arigera' proiektuaren helburu nagusia helduen euskalduntzea eta alfabetatzea suspertzea da eta proiektuaren nondik norakoak azaldu zituzten ekitaldian.

Guillermo Garatek adierazi zuenez, "Udalak azken urteotan euskararen aldeko apustua egin du eta baliabideak eta babes ekonomikoa eskainiko dizkio proiektuari". Iñasio Garmendiak elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuen. Izan ere, proiektua herriko bi euskaltegiek, Elgoibarko Izarrak eta Udalak jarri dute martxan. AEK euskaltegiko zuzendariak euskara dakitenen eta ez dakitenen arteko zubia eraiki behar dela esan zuen, "baina zubia ezin dute alde batekoek bakarrik egin, euskaldunok ere badugu laguntzeko ardura". Orain arteko esperientziak hutsuneak baizuela erakutsi du eta proiektu hau hutsuneak betetzen saiatuko da. "Arigera" proiektuak, ikasteari uzten dion ikasleari lagundu nahi dio, euskara euskaltegitik



Udalak, Elgoibarko Izarrak, AEK euskaltegiak eta Udal euskaltegiak elkarlanean bultzatu dute "Arigera" proiektua.

pasarte bat irakurri zuen eta Mikel Dakintak ekitaldiari umore puntua eman zion txistek euskaraz kontatuz. Amaieran, Udaletxeko Pleno Aretoa bete zuten guztiak Euskal Herrian Euskaraz abestia kantatu zuten Itxaropena abesbatzako gaztetxoak eta soinu joleen laguntzaz.

Proiektua martxan da jadanik eta, orain, emango dituen fruituak ikustea baino ez da geratzen.

kanpo erabiltzen ez duenari pauso hori emateko laguntza eskaintzera goaz. Eta ikasi nahi eta kanpoan gelditzen renentlat taldea lortzen saiatuko gara", adierazi zuen Itziar Agirregomezkortak.

Proiektuaren bultzatzaileen azalpenen ondoren, egitasmoaren protagonista direnak hartu zuten hitza. Euskara ikasi duten bi elgoibartarrek hitz egin zuten lehenengo, eta euskara ikasten ari den neska kataluniar batek ondoren. Tartean, Jokin Martinezek "Kutxidazu bidea Ixabel" libumko

### • Hiru zauritu izan ziren igandeko auto istripuan

Bi mutil gaztek eta gizon baten batek zauriak izan zituzten igandean, hilaren 23an, N-634 errepidean, Elgoibarraren gertatutako istripuan. Bi auto elkar jo zuten eta ondorioz 20 urteko bi mutil eta 56 urteko gizon bat zauritu ziren. Istripua goizeko 9:15ean izan zen. Peugeot 205 automobilak Opel Kadett baten aurka jo zuen eta zaurituetariko bat ateratzeko suhiltzaileen laguntza behar izan zuten. Ondoren, Mendaroko ospitalera eraman zituzten hiru zaurituak.

## Sonia Rodriguez eta Maritxu Agirregomezkorta saritu ditu Gurutze Gorriak

Bolondres eta kolaboratzaile onenak izendatu dituzte taldeko kideek

Elgoibarko Gurutze Gorriak urteroko jaia ospatu zuen San Anton Egunean. Bertan, bolondres eta kolaboratzaile onenak saritu zituzten taldeko kideek. Bolondres onenaren saria, Sonia Rodriguez 21 urteko gazteak jaso zuen taldearen alde finlan egiteagatik. Sonia, duela 5 urte hasi zen Gurutze Gorrian eta gaur egun ere bertan aritzen da. Bestalde, Maritxu Agirregomezkortari eman zioten kolaboratzaile onenaren saria, taldearekiko eskaini duen eskuzabaltasunarengatik. Sarituek diploma bana, Gurutzeko Gorriko intsignia eta oparitxo bat jaso zuten. Eguna modu alaietan igaro zuten eta datorren urtean ere urtero legez ospakizuna egingo dute Gurutze Gorriko kideek elkarrekin.



Sonia Rodriguez  
BOLONDRES ONENA

Maritxu Agirregomezkorta  
KOLABORATZAILE ONENA



## Herriko Antzokia jendez gainezka egon zen Nathalia Melladoren kantaldian

Bost urteren ondoren, Herriko Antzokia jendez bete zuten Nathalia Mellado abeslari elgoibartarrak. Bere betiko kantuez gain abesti berriak eskaini zituen. Jaialdian Nathaliaren abestiei laguntzen Arlenen dantzak, Javi Navarro kantari ermuarraren ahotsa, Silvia Hernandezen pianoa eta Chemaren dramatizazioa izan ziren. Nathaliak berak antolatu du jaialdia eta erresponsabilitate handia izan arren gustura egin omen du.



## Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Obra Publikoetako sailburua Elgoibarren izan da

Alvaro Amann, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Obra Publikoen sailburua, Elgoibarren egon zen joan zen astean, urtarrilaren 20an. Berarekin batera Toño Aiz sail bereko sailburuordea izan zen eta biek, Guillermo Garate, Elgoibarko alkatearen eta J. M. Oruesagasti, Udaleko Hirigintza sailburuaren eskutik zenbait proiekturen berri jaso zuten. Uholdeen aurkako planak eta Deba ibaiaren saneamendua izan zituzten hizpide bileran. Argazkian, Alvaro Amann eta Toño Aiz ageri dira Erdian, Gilenno Garate eta J. M. Oruesagasti alboan dituztela.



## LAB sindikatuak lokal herria inauguratu du

Duela 25 urte sortu zen LAB sindikatua eta orduan zabaldu zuen lehen aldiz Elgoibairen egoitza. San Inazio kalean 5 m2ko gela txiki batean egon ostean, orain urtebete San Frantzisko kalean duten lokalera igaro ziren. Berrikuntzak egin eta gero, joan den ostiralean, hilaren 21ean, inauguratu zuten lokal berria. Ekitaldian Haritz E.D.T-ko dantzari batek aureskua dantzatu zuen eta LABeko Elgoibarko ordezkaria den Sabin Zenairuzabeitiak eta Javi Bergarak, Gipuzkoako LABeko ordezkariak, hainbat hitz esan ostean, lagun giroan ospatu zuten. Beraz, aurrerantzean LAB sindikatuak San Frantzisko kaleko 20. zenbakian izango du bere egoitza.



## Giro polita izan zen Ikastolako jaialdian

Joan den ostiralean, hilaren 21ean, Ikastolako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen jaialdia izan zen. Ikastolako frontoia bete egin zen haurren gurasoak eta senideak beraien etxeko txikiak ikustera hurbildu baitziren bertara. Jaialdian dantzak, kantuak eta antzerkiak eskaini zituzten eta ikusleen txalo beroak pozik jasota joan ziren artista gazteak.



## Haizea Emakume Taldekoak Euskal Telebistan izan ziren

Haizea Emakume Taldeko 40 lagun Euskal Telebistako "Esta es mi gente" saioan izan ziren joan zen urtarrilaren 17an, San Anton Egunean. Patricia Gaztañagak aurkezten duen saioan bikiei buruz hitz egin zuten, eta emakume elgoibartarrek ikusle gisa hartu zuten parte programan. Zuzenean izan zenez, San Anton egunean bertan agertu ziren. Argazkian, saioa hasi aurretik El' Bko gela batean agertzen dira Haizea taldeko emakumeak.

# Errosario eta San Frantzisko kaleetako etxeen ibai aldeko fatxadak berritzeko plana jarriko da martxan

Herritarrek otsailetik aurrera aurkeztu beharko dituzte dirulaguntzak jasotzeko eskaerak

**U**dalak etxeen aurreko aldeak berritzeko plana jarriko du martxan otsailean. Plan honetan Errosario eta San Frantzisko kaleetako etxeen ibai aldeko fatxadak sartuko dira lehendabizi, Herriko Plazatik Melitonerara artekoak. Proiektu honen helburua, etxeen aurreko aldeek itxura ona izatea da, Elgoibarrek N-634 errepide aldera ematen duen irudia hobetzeko. Udalak 10 milioi pezeta dauzka gordeta plan honetarako. Diru hau subentzio modura erabiliko da. Izan ere, obrak egiteko eskaera aurkeztzen duten herritarren artean dirulaguntzak banatuko dira, beraien eskaera onartzen bada.

## Eskaerak otsailetik aurrera

Plan hau gauzatzeaz DEBEGESA erakundea arduratuko da, lan hauetan aritzen den enpresa delako. Horrela, eskaera aurkeztu nahi duten elgoibartarrek enpresa honetara jo beharko dute informazio eske. Enpresa honek hiritarren zalantzak argituko ditu eta baita dirulaguntza jasotzeko eskakizunak zeintzuk diren adierazi ere. Azkenik, eskaerak Udaletxean aurkeztu beharko dira eta baidintzak betetzen badituzte, Udalak dirua emango du.

Eskaerak aurkezteko epea otsailean hasi eta hiru hilabetez luzatuko da. DEBEGESA erakundeak tekniko bat jarriko du eskatzaileen zerbitzura eta Udalak aurreratu duenez, astean behin Elgoibarrera etorriko da. Pertsona hau, ostegun goizetan etorriko da Hirigintza Sailera eta bertara joan ahal izango dira eskatzaileak. Baina, berarekin egoteko, aurrez hartu beharko da txanda DEBEGESA erakundearen egoitzara telefonoz deituta.



*Plan honen bitartez, Elgoibarrek errepide aldera ematen duen irudia hobetu nahi da.*

## • Urruzunon 40 etxebizitza sozial eraikitzeako proiektuari baiezkoa eman dio Etxebizitza Sailak

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak oniritzia eman dio Elgoibarren 40 etxebizitza sozial eraikitzeako proiektuari. Beraz, hainbat tramiteren ostean, proiektua martxan dago. Etxebizitza hauek sozialak dira eta errenta baxuenak dituztenentzat egingo dituzte. Hogeina etxe bi bloke egingo dira Urruzuno auzoan eta beraien aurrekontua guztira 406 milioi pezetakoa. Etxebizitzak eraikiko dituen enpresa "Iza obras y promociones S.A." da eta enpresa honek 20 hilabete epean bukatu beharko ditu lanak. Etxeak eginda daudenean, zozketa egingo da bertan bizitzeko eskaera egin dutenen artean. Behin etxebizitza sozial hauek egiten direnean, 120 etxebizitza faltako dira egiteko. Beste etxe horiek kontzertatuak dira eta beste epe batean eraikiko dituzte.

**44<sup>1</sup>** **KAFETEGIA**  
943 74 42 65

**JCSE** *fIr* **ctuaf**  
) \_\_\_\_\_ (Txema)  
**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab\_ jartzen dugu.**  
San Bartolome. 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • kilobila. 629 44 23 14





aur zuen artera ekarri dugun erretratua **Leonor Barrerasesk** lagatakoa da. 1971. urte inguruan atera zuten Baionara mojekin egindako txango batean. Orduan neska gazte zirenek gogoan izango dute ama Inmaculada eta ama Josefarekin egin zuten irteera. Hona hernen, bada, argazkian agertzen direnen izenak.

Eserita, ezkerretik eskumara: **Maite Vecina, Jesus Marin, Elena Garate, Encarnita Esteban, Arantxa Marin, Leonor Barreras, Dionisia Barroso** eta **Manola Paredes**.

Belauniko: **Ana Isabel Loiola, ama Josefa, Inmaculada Urruzola, ama Inmaculada, Maite Txurruka, Ana Rosa Lariz, Arrate Zulaika, Mari Cortes Castro** eta **Lola Lopez**.

Zutik: **Ma Isabel Lariz, Izaskun Jauregi, Juanita Iriondo, Elena Suarez, Ma Carmen Loiola, IVP Isabel Seijas, Conchi Zubiaurre, Amaia Landa, Juanita Loiola, Marivi Garcia, Angeles Larrañaga, Pilar Salegi, Charo Eizagirre, Jesus Ulazia, Ma Angeles Kruzelegi, Juli Godoi, Rosa Salegi, MHJesus Zabala, Arrate Ondarra, Nieves Aranberri, Almudena Ferrero, Eugenia Larraiaga** eta **Belen Prieto**.

# Jokin Urain Larrano, 3a

# MENDAROKO EUSKAL PRESOA



*Alkorta baserrian jaio zen 1959an, Lasturren egin zituen lehen ikasketak, Deban ondoren eta Donosilako Zabalegi Laborari Eskolan gero. Baserrian lan egin zuen 1983an Iparraldera ibesi joan zen arie. 1986an atxodotu, eta ebundaka urtetako kartzela zigorra ezarri zioten ETAko militante izatedgatik. Aurten beteko dira urte gartzelaratu zutenetik. bori dela-eta, bilmlarunbata. urtarrilaren 29an, ontenaldia egingo diote Mendaron.*

**O**rain Palentziako Dueñasko kartzelan dago. Berarekin eskutitzen bidez komunikatzen garenean lehotik ikusten duena kontatzen digu jokinek, bertako lautadetan gari uztak noia batzen clituzten, alegia. Edo, nola bere espe-  
txeko kide gehienak atzerritarrak diren, ia denak droga arazoak direla medio atxilotutakoak. Han, Euskal Herritik 750 kilometrotara, jokinek eta berarekin dauden gainontzeko euskalclunek idaztea dute hormetatik kanpora ateratzeko

modu bakarm. Bertsok, ipuinak, eskutitzak... idaztea.

## 'rruritzea sakabanaketa

Kartzelan sartu zutenetik, sorterritik urrundu zuten Jokin eta funilia arteko harrerenak puskarazi zizkioten. Haizeorratza bezala hara eta hona, Carabanchelen hasi zen eta Duellasen egokitu zaio orain iraupen froga. Akala (800 Km.ra), Herrera de la Mancha (1240 Km.ra), Sevilla II (1600 Km.ra), Teruel (850 Km.ra) eta Bonxe (1350 Km.ra) pasa ditu hien bitartean. Kilometro hauek guztiak hoge minutuko bisitaldiko hitzeman eta begietan lekutzerara behartua izan denak, esateko asko clauka, denigorrez.

## Iclazlea eta bertsolaria

"fixirristaka" hertsolariaren omenez egindako azken benso paper lehiaketan bigarren saria eskuratu du jokinek. Bertsozalea cla eta kontu asko dakizki bertsolariet buruz. Behin kontatu zigun nola Xahier Anatriza Mendaron entzun zuen lehenhizikoz bensotan eta Saran, Iparraldera ihes egin zela, azken aldtz. Xalbadonen bertso gogoangarriak ere buruan dauzkala erakcasi zigun.

Debako "Tene Mujika" 3. saria eta gortako Bertso Eskolaren "Urretxinclorra" lehiaketa irahazi zituen kartzelaratu eta handik oso denbora gutxtra. Ildo horretatik, bere sonnenak aurrera darri, eta "Izaina" eta "Adlotse" liburuak argitaratu clact. Kartzelaren burugabekeria eta herdaIde imajinario batetaz ari da bi libu-  
motan. Itxaropena aipatzen du sarritan;

beharrezko ikusten du bizirauteko, beste batzuetan "itxaron beharraren pena" bihunzen zaio.

Bere idazteko eta bertsoarako abileziaren adihide, hona hemen jokin Untinek iclatzitako hainbat bertso eta poema. Lehendabizikoa Lasturko San Nikolas jaietarako prestatutakoa da:

*Euskal Herritik 750 kilometrotara,  
jokinek eta berarekin clauden  
gainontzeko euskaldunek idaztea  
clute hormetatik kanpora ateratzeko  
modu bakarra. Bertsok, ipuinak,  
eskutitzak... iclaztea.*

*Itxaropenak mantentzen gaitu  
besterik ez dagonean  
agian egun hobeak daude  
gure etorkizunean  
esatekoak esanak daude  
Amaitu det azkenean  
sermoi luzeak sobran baltira  
jaietan gabiltzanean  
San Nikolasak osasunakin  
igaro Lastur aldean*

Kartzelaratu zutenetik 10 urte igaro zirenean bertso hauek iclatzi zituen:

*Joan etorri motzean  
pansoa lasai antzean  
paretak daude aurrean eta  
partetak atzean.  
Gaezan oheratzean  
loak hartzeko trantzean,  
galdezka nago nora joango  
naizean ametsean.*

*Ametsak dira bizigai,  
etorkizuna ere bai,  
presoak ez du askatasuna  
beste gauzarik nahi.  
Itxaropenez gaude blai,  
inoiz triste, inoiz alai,  
egunez egun gure eguna  
noiz argituko zai.*

Euskara debekatua dauka, 1.7aina bere idatzietan ama hizkuntza daahil, honako poema hauetan ikus dezakegun legez:

*Zega-zai batek  
hasta luego  
esana z agurtu nau  
Ez diot  
fitxik ihardetsi  
ez eta so bat ere.  
Zer behar nioke bada*

*opa  
nere atzean  
atea,  
ate pisu hori  
hersten didanari!*

*Gauari  
nabi nioke galdetu  
zergatik ez dituen  
ene penak  
egunaren argia bezala  
aienatzen*

*Izarrei  
nabi nieke galdetu  
zergatik ez duten  
ene bibotza  
gauaren iluna bezala  
alaitzen*

*Hai zeari  
nabi nioke galdetu  
zergatik ez dizkidan  
maitearen laztanak  
pago hosto igarrak bezala  
ekartzzen*

*Euriari  
nabi nioke galdetu  
zergatik ez duen  
ene egarria  
zelai lehorretan bezala  
asetzen*

*Etsaiari  
nabi nioke galdetu  
zergatik ez duen  
herriaren garrasia  
indarkeri ankerren orde z  
aditu nabi.*

Jokin Urain Larrañaga



## Omenaldia

14 urte beteko dira aurtan Jokin Urain gartzelan sartu zutenetik. Hori gogoratzeko ornenaldia egingo diote, EHk eta Senideak talcleek antolatuta, bihar larunbata, hilak 29, Mendaron. Arratsaldeko 18:30ean kontzentrazioa izango da. Udaletxe parean "Euskal presoak, Euskal Herrira" lemapean. 19:00etan hitzaldia, Lizarreta eta Olabe bertsolariak, txalaparta eta ekitaldi bereziak izango dira frontoian. Ondoren, afaria izango dute hertsolariekin. Guztiei deia luzatu nahi zaie Jokin Urainekin akordatu eta ekitaldira joateko. Bide batez, adierazi nahi da berarekin komunikatzeko bidea eskutitzen bidezkoa dela, beraz, gogoan hartu honako hau dela bere helbidea:

Jokin Urain Larrañaga  
C.P. La Moraleja nº 6  
Centro Local P-120  
34210 Dueñas (Palencia)

## Gaztetxearen aldeko sinadura bilketa

Mendaron sortzen ari diren talde eta mugimendu berriak ikusita, Mendaroko hainbat gazte elkartzeko gune baten beharra ikusi du. Gazteek parte hartzeko ekintza aberasgarriak antolatze aldera, otsailean Mendaroko Gaztetxearen aldeko sinadura bilketa egingo dute herrian. Hori dela-eta, herritarrek animatu nahi dituzte Gaztetxea sortzeko mugimendu honetan parte hartzera.

## ❖ Santa Ana jaiak antolatzeko bilera

Aurtengo Santa Ana jaiak antolatzeko herritarren partehartzea bultzatu nahi du Udalak. Helburu horrekin herritar guztiei deia luzatu nahi zaie gaur, ostirala, hilak 28, arratsaldeko 19:00etan Udaletxeko pleno Aretoan izango den bileran parte hartzeko. Beraz, jaietarako ideiak proposatu nahi dituztenek batzarrean izango dute horretarako aukera.

## Lagun Betikoak Elkartearen oharra

Otsailaren 2rako, asteazkenarako, Lagun Betikoak elkarteak bilera deitu du. Batzarra arratsaldeko 17:00etan izango da Jubilatuen Egoitzan. Bertako aztergai nagusia 2000. urteko plangintza izango da, eta bazkideei luzatu nahi zaie bilerarako deia.

## Iberristakal bertsolariari buruzko hitzaldia izan zen Mendaron

Giro polita izan zen joan den ostegunean, hilaren 19an, 'Txirristaka' ri buruzko hitzaldia. "Mendaro Txirristaka" liburua argitaratu zuen Antonio Zabala eskaini zuen hitzaldia. Aita Zabala, bertsoaritzaren egindako lana dela-eta Deustuko Unibertsitateak Doctor Honoris Causa izendatu berri du. Ekitaldian, duela 25 urte Guruzpe zenak antolatutako 'Txirristaka' ren omenaldia izan ziren hainbat lagun izan ziren. Besteak beste, Jesus Mari Etxezarreta, Joxe Mari Iriondo, Antton Aranburu, Abel Munia-



Argazkian ezkerrean, Antonio Zabala, eskuman, Juanito

tegi eta Pello Esnal. Esan bezala, giro atsegina izan zen eta Kultur Etxean bildutakoek 'Txirristaka' ren bertsoak abestuz amaitu zuten saioa.

## 'In Leike' elkarteak eta Plataformak aurtengorako programak aurkeztu dituzte

In Leike' elkarteak eta Mendaroko Plataforma Aktiboak 2000. urtean burutu nahi lituzketen asmoak plazaratu dituzte. Haia ere, urtean zehar sor litezkeen ideia berriak beti izango dute lekua.

In Leike'k jada martxan jarri du gitarra ikastaroa eta euskararen arloan ere aurrera atera nahi du Bertso Eskola otsailean. Mendiko taldeak estreinako irteera izan zuen, hilaren 22an, eskiatzera joan ziren. Plataforma ere gogo berriturik dator. Ohizko Kontzesio azokako txozna eta azaroko gaztain erre egunaren ostean, udaberrirako baserriko lanabesen



In Leike' retz gitarra ikastaroan 20 lagun inguru ari dira.

museoa eratzekotan dabilta. Honetaz gain, presoen aldeko ekimenak eta Venezuelarako laguntza bidaltzeko saioa egin dituzte eta aurrerantzean sor daitzeko beharrei erantzuteko ere ekintzak egingo dira.

Maritxu Agirregonezkortak joan zen urtarrilaren 17an, San Anton egunean Gurutze Gorriaren urteko kolaboratzailearen saria jaso zuen. Maritxuk esan digunez, urtetan dabil erakunde honi modu batera edo bestera laguntzen. Aurten saria berari ematea erabaki dute eta berak eskerronez jaso du, nahiz eta bere iritziz berak halakorik ez merezi. 63 urte beteta jubilatuta berri, aurrerantzean ere laguntzeko prest azaldu da.

# MARITXU Agirregonezkorta

## "Gurutze Gorrixak laguntza gehixao bihar dau"

—**Kolaboratzaile onenaren saria eman dizu Gurutze Gorriak.**

- Urtian zihar in doten lana balorau dabe eta neri eman diate premixua. Oso pozgarria izan da. Nik ez naban pentsatzen emango ziatenik. Nik eurei esan niuen ez nabala premixoa haura merezi, baina eurek baietz, lana borondate.z in nabala, trukian ezer ere eskatu gabe eta horregatik aukeratu nindutela. Neretzat poz haundixa izan zan.

- **Nolakoa izan zen saria eman zizuten eguna?**

- Egun pozgarria izan zan. Diploma bat jaso naban nere izenakin eta insignia bat eta beste erregalotxo bat ere eman zien. Nik ez naban merezi premixoa hori. Itxen dotena borondate guztixakin itxen dot, baina ez ho-

rretan pentsatzen. Ez nakan idearik ere emango zienik. Neri poz haundixa eman ziaten. Danok bazkaldu crenduan, eta ondoren hantxe egon ginan berbetan, ze pasatzen dan kontatzen etab. Beste neska bati ere premixua eman ziuere bere lagunek, Sonia Rodriguezi, urteko boluntarixoa onena izatiagatik.

— **Zer lan egiteagatik eman dizute sari hau?**

- Gauza pila bat egiteagatik. Nik dendan rifak tzen nitxuan, edo jendiari Gurutze Gorriari laguntzeko esaten niuen... eta gero beste gauza batzuegatik ere bai. Ni urtetan nao hori itxen, eureri laguntzen. Baina eurok urtian behin bat aukeratzen dabe herrixan eta aurten neri tokau jata. Berriz ere bihar badabe ni

prest nauala esan niuen.

—**Zergatik hasi zinen Gurutze Gorriari laguntzen?**

- Nik pentsatzen dot Gurutze Gorrixak lan haundixa itxen dabala eta kolaborau in bihar dala. Eurek borondatez itxen dabe lana, ezer ere kobrau gabe eta nik lagundu in bihar dala ikusten dot. Gauza asko in leikez laguntzeko. Nere ustez Gurutze Gorrixak laguntza gehixao bihar dau. Diar itxen diezu eta segitxuan daude juteko prest.

—**Gaurko gizartean nahikoa laguntzen dela uste duzu?**

Nik pentsatzen dot laguntza haundixa bihar dala, baina eman ere ematen da. Gañtiak, por ejemplo, oso langile daude. Gaztiei buruz esaten da ez dabela laguntzen, baina hori neretzat ez da holaxe. Bakoitzak beria pentsatzen dau, baina neretzat gaztiak oso laguntzaileak dia. Gurutze Gorriaxan dauden danak gazdak dia eta talde ikusgarria da. Ikustekua da zelan itxen daben lana eta zelako maila daken. Horreri lagundu in bihar jakuela pentsatzen dot.

—**Gurutze Gorriaren lana behar beste estimatzen al da?**

- Etxian bateron bat tokatzen bajatzu eta zela ekartzen edo eruaten daben jakinez gero edo bihana zela itxen daben ikusten badozu, gehixoa apreziatzen da euren lana. Baina sekula ezer tokau ez bajatzu, ez dakizu zela funtzionatzen daben. Lehenengo bizi in bihar da, lana zela itxen daben ikusteko.

### ¡ESTE EK ESANA

"Bihotz oneko emakumea da, besteek egindako lana estimatzen duena" MILA PICAZA, Gurutze Gorriko Asanbleako burua.





**Mari**  
er-  
nandez Arre-  
ba Palma de  
Mallorcan bi-  
zi da. 29 urte  
ditu, eta duela  
4 urte senitar-  
teko bat Pal-  
man bizi zela  
aprobetxatuz,  
lan bila bertara

Mct wi

Fe V-vt.ct e.z

joatea erabaki zuen. Gaur egun, koope-  
ratiba batean idazkari lanak egiten ditu.  
"Lana bilatzeko eta giroz aldatzeko as-  
moz heldu nintzen Palmara eta oso  
gustura bizi naiz hemen. Jendeak uste  
baino negu hotzagoak egiten dituen  
arren, eguraldia primerakoa da eta he-  
mengo parajeak oso politak dira. Kala  
edo itsasertz zoragarriak daude. Drach-  
eko kobazuloak edo Formentor irla  
ikusgarriak dira". Mallorkako bizinto-  
dura ohitzea ez zitzaiola batere kostatu  
esan digu, "oso irekia izan naiz beti, eta  
ez nuen bertara moldatzeko arazorik  
izan. Bestalde, penintsulako jende uga-  
ri dago hemen eta leku askotako lagu-  
nak egin ditut. Euskaldunik ere bada,  
nire laneko nag,usia adibidez, oriotarra  
da". Dena dela, beti du gogoan Elgoi-  
bar, "2 urte claramatzat Elgoibarrera jo-  
an gabe lan kontuak direla-eta. Inika-  
tan nago fanaila eta herria bisitatzeko.  
Baita lagunekin poteoa egin eta pintxo-  
ak jateko ere, hemen ez baitago horre-  
lakorik. Astebukaeretakoa giroa erabat  
desberdina da, hemen diskotekak bes-  
terik ez daude. Nik nahiago ditut El-  
goibarko asteburuak". Elgoibarko kon-  
tuen berri bisitan joaten zaizkion lagu-  
nen bitartez izaten duela aipatu digu,  
"lagun asko etortzen zaizkit bisitan eta  
behin baino gehiagotan egin behar izat-  
en ditut gidari lanak".

4  
11'  
--o.==

VIAJES EIDAIK  
**BILBRO EXPZESS**

**bidai agentziak  
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3  
Tel 943 74 39 12

## Julian Iascurain Ajubita

(1917-1986)




- 1917ko ekainaren 9an jaio zen Madalan. 4 anai-  
arreba izan ziren, bera gazteena, eta bi aita izan zituz-  
ten. Julianen ama, Magdalena, sukaldari ospetsua  
zen. Madalako mojetan egin zituen ika,sketak sor Ana  
ospetsuarekin. Monagiloa ere izan zen. Gero, eskola  
publikoetan aritu zen.
- Koadrilako lagunekin batera, makina bat bider jo-  
katu zuen futboleko Madalako `Ormetxe'n eta Lerun-  
go zelai zaharreen. Kirol zalea zen, Aldeibarko po-  
tzuan igeri egitea gogoko zuen eta primerako pilota-  
ria zen. Baita C.D. Elgoibarko jarraitzailea ere.
- 14 urterekin "Jose Leon Ciaran" enpresan hasi zen  
lanean, gaueko tunioetan. Geroago, "Jarbe" tallentan  
egin zuen lan hainbat unetan. Madalako "Bomba"  
koadrilakoa zen, eta "Plazatarren" aurka izaten zituz-  
ten kirol lehiak oso ezagunak ziren. Madalako eliza-  
ko estalpean elkartzen ziren koadrilakoak eta bertan  
jolasean ibiltzen ziren. Erromerietan dantza egitea go-  
goko zuen, baita Plaza Handian jaietan ere.
- 1936ko guda zibilean frontearen ibili zen. Atxilotu  
egin zuten, eta Huesean denboralditxo pasatu zuen,  
Jaulinen langile batailoian, hain zuzen ere. Ondoren,  
Deustuko basean lan egin zuen eta bertan topatu zuen  
andregai. Deustuko San Pedro elizan ezkondu zen  
Teresa Alboniga pertxentarekin. 3 seme-alaha izan zi-  
tuzten; Ma Tere, J. Ignacio eta Luis Hintrak El-  
goiban'en bizi izan dira beti.
- Julian itxura ederrekoa, dotorea eta galanta izateaz  
gain, atsegina eta alai zen. Sozialista izateagatik zen  
ezaguna. "Jarbe'n lan egiten zuten beste 12 lagunekin  
batera `Danobat" kooperatibaren sonzaileetarikoa bat  
izan zen. Jubilatuta arte egon zen bertan lanean.
- Herritar ezagun hau "Peila Parrita" koadrilakoa zen.  
Umore onekoak eta bromazaleak ziren eta abestea  
gogoko zuten. "Morkaiko" eta `Gure-Bide" elkarteeta-  
ko bazkidea izan zen. Bihotz onekoa zen, eta famili  
giroa eta lagun artea atsegina zuten.
- 1986ko irailaren lehen hil zen 70 urte zituela.

Juanito Gorostiza

**HERRI-GAİN  
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa, 4  
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR



Urrutira deitu gabe  
bertakook segituan  
konponduko dizugu  
igogailua

943 20 35 15  
ABERIAK 943 20 31 25  
Bista Eder, 11 (sotanoa)  
41 20600 EIBAR





# A

ste honetako argazkia lñaki Alberdik ekarri digu eta orain 35 urte inguru ateratakoa omen da. En`etratua `Barruna' kafetegiaren aurrean atera zuen gizon koadrila honek eta kanpokoak ezezik taberna barruan ikusten dena zein den jakitea ere lortu dugu. Argazkian honako hauek agertzen dira. Goiko ilaran, ezkerretik hasita: **Eugenio Larrinaga "Bizkai"** (t), **Justo Aizpiri**, **Sabin Alberdi "Eustakon"**, **Martin Alberdi**, **Jeronimo Oñederra** eta **Jose Ignacio Ularia**. Behean makurtuta: **Angel Beristain**, **Jesus San Martin** **Agustin Errasti "Etxetxo"**, **Antonio Eugi "Albitxuri"**, **Juan Celaya** (t) eta **Manolo Alvarez**. Taberna barruan: **Cristobal Alvarez**.


## MEZA


1999ko urtarrilaren 27an, 87 urterekin Bilbon hil zen **JOSE ARANA OSORO**ren omenez larunbatean, hilak 29, Parrokian arratsaldeko 19:00etan izango da meza. Joaten zaretenoi eskerrak alde zurretik.



## ESKERTZA

2000ko urtarrilaren 17an, 85 urte zituela hil zen **FRANCISCO OSORO AGIRREGOMEZKORTA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako dolumbiak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## Zuhaitz Gurrutxaga

■ **Adina:** 19 urte.

**al Gustuko jokalaria bat?** Javier De Pedro

• **Gogoan duzun partidu bat?** Ligan debuta egin nueneko, Atletico de Madrid taldearen aurka Vicente Calderonen jokatu nuena, alegia.

11 **Zein postutan sentitzen zara erosoan?** Zentral postuan jokatzen dut, baina edozein tokitan jokatzeke prest nago.

# "19 urtekin eta atzelarixa izanda ez da erreza lehen mailan debutatzia"

**-Atiffico de Madrid taldearen aurka debuta egin duzu `Izarrep Ligan'. Gustura, egindako partiduarekin?**

Nerbioso eongo nintzala pentsau arren, uste baino trankilao jokatu naban. Lehen mailako erritmua aguantatzeko gai izango ote nintzan bildur piska bat nakan, baina fisikoki ez naban arazorik euki. Bestalde, Vicente Calderon zelaixak inpresiva eitzen dau. Danak gure kontra zaozen eta sekulakuak entzun genitxun beroketetan. Gainera, telebistatik ematen dabana baino estuaua da eta jendia gainian dauala ematen dau. Hala ere, lehenengo baloietan konfiantza hartu eta nahiko ondo moldau nintzan.

**-Askotan amets egingo zenuen momentu honekin, ezta?**

Futbolian gabiltzan danok eitzen dou amets momentu honekin, baina pentsatzen nabana baino lehenao debutau dot. 19 urtekin eta atzelarixa izanda, ez da erreza lehen mailan debuta eitxia. Entrenadoriak konfiantza asko euki bidau jokalarixakin eta horrek neri animuak eman dizkit.

**-Lehen partidua, eta txartel gorria atera zizuten. Merezitakoa izan al zen?**

Lehenengo txartel horixa bai; bigarrena, gehiegizkoa izan zan. Debutan gauzarik txarrena izan zan, baina gutxienez enpate bat lortu genduan.

**-Debuta egiteko partidu ezin zailagoa tokatu zitzaizun; Vicente Calderon zelaian, hil ala biziko partidua, eta Hasselbaink eta Kiko moduko aurrelariak gelditu behar.**

Bai, gauzak ez dia bakoitzak nahi tnodukuak izaten beti, eta datozen moduan hartu bihar dia. Lorenen sanzivak eta Corinon lesivak eman zien jokatzeke aukeria eta aprobeixau biharrekua zan. Bestalde, ondo jokatuz gero, galtzeko baino irabazteko gehixo nakan, 19 urte besterik ez ditzut-eta.

**-Presio asko nabaritu al duzu?**

Jokatzeke aukerak nitxuala jakin nabonetik nere buruari presiva kentzen saiau naiz.

**-Clemente oso gustura geratu zen egin zenuen partiduarekin. Kikok ere lan ona egin zenuela aipatu zuen.**

Entrenatzaila gustora lagatzia garrantzitsua da, eta Kiko moduko goi mailako jokalaria batek holakuak esatiak poza ematen dau.

**-Zer duzu esateko Hasselbainken jarreraz?**

Ukalondokua jo zianian ustekabian harrapau ninduan. Ez dakitx zer pasau jakon burutik ein zabana eitxeko, baina futboleko kontuak holaquak dia.

**-Zer azpimarratuko zenuke zure jokatzeke modutik?**

Zeozer azpimarratzekotan, borroka eta gogua aipauko nitxuzke. Buzur ere nahiko ondo moldatzen naiz, baina zuzendu biharreko defekto asko ditzut oindiokan.

**-Zer behar du Realak zulo beltzetik irtetzeko? Aldagelan nola daude animoak?**

Ekipuak dakan kalidadia ikusitxa zulotik urtengo gerala pentsatzen dot. 17 partidu falta dia eta jendia animauta ikusten dot. Pare bat partidu jarraixan irabaztia da kontua, batez ere etxian. Hala ere, asko borrokatu biharke dou. Real sailkapenian hain behian egotera ohitzeke zauan, eta gogorra eitzen da danontzat, bai zaletuentzat, eta baitxa jokalarixentzat ere.

**-Zer iruditzen zaizkizu Realak egin dituen azken atzerritarren fitxaketak?**

Gauzak ondo ez duazela ikusitxa, entrenatzailiak pizgarri baten biharra ikusiko zaban. Atzerritarrek sortuko dabon kompetentzia taldian onerako izango dala uste dot.

**-Zein dira zure aspirazioak?**

Epe laburrera berriz ere titular jokatzea zaila izango da. Entrenannientuetan parte hartu eta konbokatorixetan sartzen jutia da hurrengo pausua eta ahal bada taldiari azken postuetatik ihes eitzen laguntzia.



# Sammy Kipketer, 21 erteko kenWITEIX irabazi du Mugerza krosa

Martin Fiz 10, sartu zen helmugara bederatzi afrikarren atzetik

Sammy Kipketer 21 13urteko keniar gazteak irabazi zuen Mugerza krosaren 57. edizioa domekan Mintxetan. Emozioz beteriko amaiera izan zuen lasterketak, izan ere, Kipketerrek Evans Ruto herrikidea espreinean gainditu zuen. Rutok iazko mundialean 5. egin zuen eta Mintxetan irabazteko faborito nagusienetakoa zen. Irabazlearen denbora 30'13" izan zen, iaz Teratek egindakoa baino 1'8" gutxiago. Helmugara iritsi ziren lehen 4



SAMMY KIPKETER

Iasterkariak Keniarrak ziren. Afrikarra ez zen lehen lasterkaria, Martin Fiz ilazteiztarra, 10. postuan iritsi zen. Fiz gogo askorekin etorri zen Elgoibarrera, baina ezin izan

etiopiarrak izan baitziren. Korrikalari espainiarrak ere tin ibili ziren, Maria Abel gali-ziarra 5. postuan sailkatu zen denbora luzez lasterketa buruan tiraka ibili ostein.

zuen ezer ere egin afikarren nagusitasunaren aurrean. Hala ere, Abel Antonekin zuen lehia partikularrean garaile izan zen. Anton, denboraldiko bigarren lasterketa zela kontutan hartuz, ez zen batere gaizki ibili eta 15. postuan iritsi zen helmugara.

Etiopiarrak nagusi emakumezkoetan

Yimenashu Taye etiopian-ak irabazi zuen emakumezkoen lasterketa. Emakumezkoetan ere afrikarrak izan ziren jaun eta jabe, lehen lau sailkatuak

## IMIR 712

### Eskubaloia

Zuazo 10 - Pagoaga Elg. 15 (Kad. nes.)  
Gaur Elg. 27 - Almen 19 (Kad. mut.)  
Tecnomeca Elg. 21- Egia Juggers 15 (Kad. mat.)  
Ztrazo 14 - linceta Elg. 22 (Jub. nes.)  
Pneumax Elg. 27- Leizaran 21 (Jub. mut.)  
Bera-Bera 24 - IMS Elg. 16 (Senior nes.)  
IMH Elg. 22 - kaundi Bergara 25 (Senior mul)

### Idarraga Kafeak 3. saria

HAUND110 jokalaria erregularrena 99/00  
JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Aranbarri.....	29
2- Zulaika .....	28
3- Castro .....	25
4- Polo .....	21
5- Diaz .....	15
6- Alberdi .....	14
7- Bravo .....	13
8- I, Leonardo .....	12
9- Ibarluzea .....	11
10- Castillo .....	11
11- Loren .....	10
12- Ball .....	8
13-Guarrotxena .....	6
14-Fit.dz .....	5
15-Manolo Ramos .....	4
15-Alkorta .....	4
17-Txasio .....	4
18-Caro .....	4
19-Edu .....	4
20-Fernandez .....	2
21-Mikel .....	2

## AO. DA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 29  
15:30 Elgoibar - Hernani (Jub. E.L.)  
17:15 Pedrusko - Tolosaldea (1. erreg.)  
Igandea, 30  
12:00 Elgoibar - Ilmieta (Kad.)

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 29  
16:00 Pneumax Elg.- Urola Inmo (Jub. mut.)



YEMENASHU TAYE

## SAILKAPENAK

### Senior gizonak:

1-Sammy Kipketer	30'05"
2-Evans Ruto	30' 05"
3-Salim Kipsang	31'06"

### Senior emakumeak

1-Yemenashu Taye	17'21"
2-Werknesh Kidane	17'24"
3-Hareg Sidelil	17'25"

## LLI

### Igeriketa ikastaroak Olaizaga Kiroldegian

Udal Kirol Patronatuak antolatuta, otsailaren 8an hasiko dira igeriketa ikastaroak Olaizaga Kiroldegian. Adin guztira 14 saio izango dira, goizez eta arratsaldez. Interesatuak otsailaren 4a baino lehenago eman beharko dute izena Kiroldegian

## CCI

## cz

## CD

## CC

### Zikloturisten irteera urtarrilaren 23an

Elgoibarko Lagun Taldeak aurtengo laugarren zikloturisten irteera antolatu du. Datorren igandean, hirlaren 30ean, izango da irteera. Goizeko 10:30ean Txankakua zubitik hasi, eta honako hau izango da egin-goduten itzulia: Soraluze, Bergara, Oñati, Udana, Legazpia, Zumarraga, Antzuola, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 74 km dira. Edozeinek parte har dezake.

### 31. Xake Txapelketa otsailaren 5ean

Elgoibarko Xake Elkarteak 31. Xake Txapelketa antolatu du. Txapelketa otsailaren 5ean, zapatua, jokatu da anutsaldekoko 16:00etan. 3 maila izango ditu; seniorrak (16 urtetik gorakoak), jubenilak (12-16 urte bitartekoak) eta infantilak (12 urte artekoak). Izena emateko elkar-teak Pista Beltzean duen egoitzara jo, edo bestela 943 74 34 29 telefonora deitu.

# RI 2L

## Indarra eta sentimendua

e Beatles, Led Zeppelin eta .1. Jimmy Hendrix dira, besteak beste, bertatik pasa direnak. Momentuan puri-purian zeuden taldeek jotzen zuten BBC katea britaniarreko estudioetan. Gaur egun, "BBC Sessions" deIakoetan entzun ditzakegu garai hartan grabatutako kontzertu izugarri horiek.

Diska bikoitz honetan (bata zuzenean, beste estudioan) Rory Gallagherrek 1971. urtetik 1986ra bitartean grabatutako abestiak biltzen dira. Zuzeneko indarra eta estudioko feelinga tartekatzen dira. "Calling card" abestiak bluesa eta rocka nahi beste entzuteko parada dugula aurreratzen digu. "Country Mile" eta "Roberta" bezalako kantetan bizitasuna nagusitzen den bitartean, "For the last time" lasaitasuna igortzen duen horietakoa du. Rory Gallagherrek erakusten duen indarra izugarria da; slide gitarraren teknika, berriz, paregabea. Bertsiorik onena ere bada, Thompsonen "Toredown" eta Preston Fosterren "Got my mojo working", kasurako; biak ere zuzenean eta blues-rock estilorik onenean.

Gitarra jole irlandarraren lehen urratsak biltzen dira batik bat diska honetan. Abeslari eta musikari bikaina zen Rory Gallagher, zuzenean zeukan guztia ematen zuena eta estudioan ahaztezinak diren diskak grabatu zituel. Ezbairik gabe, "BBC Sessions" honen bi elementuak jasotzen ditu.

Ion Gurrutxaga



## Ekitaldi berezia egingo otsailaren 5ean Santa Ageda eskearen 75. urteurrena ospatzeko

Eskultura bat inauguratuko da eta urtetako partaideei oroigarria emango zaie

Aurten 75 urte beteko dira herrian Santa Ageda eskea egiten hasi zirenetik. Urterrenaren aitzakian, zenbait ekintza berezi egingo da. Urte askotan kantuan ibili diren pertsonak omenduko dituzte eta eskultura bat inauguratuko da datorren lariaz batean, otsailaren 5ean, Santa Ageda eskea egingo den egunean.



Kaleetan kantuan aritu ostean, larunbatean, otsailaren 5ean, eguerdiko 13:00etan bolaiokiko parkean ekitaldi berezia izango

Aurtengo Santa Ageda eskea berezia izango da. Goizeko 9:00etan talde osoa irtengo da kantura. Herriko kaleak zeharkatu ondoren, eguerdiko 13:00tan Bolatokiko parkean 75. urteurreneko ekitaldia hasiko da. Ekitaldi horretan eskultura bat inauguratu eta bedeinkatuko da. Eskultura, Santa Ageda eskeko jendearen oroimenez egindakoa da eta giza baloreen aldarrikapena ere bada.

Ekitaldi berean oroigarri bana emango zaie German Uriguen "Etxegiiiia"-ren. Santi Kortaberriaren eta Ramon Uriguen "Etxegiña"-ren senideei (Santa Ageda eskearen sortzaileak). Horiez gain, Rafael Areitioaurtenaren senideek, Inazio Arresek

eta Patxi Igartuak oroigarria jasoko dute. Baita Sabin Muguruza "Agarre-Txiki"-ren senideek, Araceli Txurrukak, Baltasar Elkartek. Donostiako Elgoibartarren Elkartek eta 35 urtetan lagundu duten dendek ere: Azkubek, Muruamendiaraz zozotekriak eta Ibar-Txiki edari banatzaileak. taldia, ohikoa den bezala, Errosario kaleko Amabirjinaren irudiaren aurman hukatuko da. Jarraian, bazkaria izango da Baltasar eikartean eta arratsaldeko 19:00etan meza izango da hildako herritarren omenez.

## Hika taldeak "Euskal Off 2050" antzezlan eskainiko du otsailaren 4an Herriko Antzokian

**F**lika Teatroa antzeztaldeak "Euskal Off 2050" antzezlan eskainiko du datorren ostiralean, otsailaren 4an, Herriko Antzokian. Emanaldi honen antolatzailea Elgoibarko Udala da eta laguntraileak, beniz, "Arigera" proiektuko erakunde eragileak: Elgoibarko Izarra, AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia. Saioa, gaueko 22:30ean hasiko da.

"Euskal Off 2050" antzeztaldek XVII. euskal antzerki topaketetako talde profesional onenaren saria eskuratu zuen. Egilea Agurrzane Intxaurrea da eta aktoreak, berriz, honakoak: Anjel Alkain, Loli Astoreka, Belen Cruz, Miren Gojenola eta Josu Mujika elgoibartarra, Makarena Pomboren zuzendaritza-pean.

'Hika' taldearen emanaldi berri honek euskararen gaia lantzen du. Taldekideek, etorkizunean gertatzen den istorio trajiko bat

agertuz, euskararen etorkizun itxaropentsua azaldu nahi dute. Izan ere, antzeztaldek zera kontatzen du: 2050. urtean, amerikar turista bikote batek Euskal Herriko kultura eta hizkuntza inuseo antropologikoa bisitatzea erabaki du. Bertako hizkuntza, euskara, desagertuta dago, beraz, museo da gelditu den Euskal Herriaren azken aztarna. Turista bikotea museoaren areto ezberdinetatik pasatuko da eta gutxinaka, ezezaguna egingo zaien herri zabala aurkituko dute.

**Josu Mujikaren koreografia**

Disziplina ezberdinak biltzen dituen tragi-komedia da "Euskal Off 2050", kornediak, tragediak, dokumentazioak, antzerki poetikoak eta dantzak lekua haitute bertan. Dantzari dagokionez, Josu Mujika elgoibartarra dantzariak prestatutako koreografia agertzen da

# drogak

# azieen arazoa?

*Duela gutxi Elgoibarko Institutztan drgonzenpekotasunaren prebentziorako programa berri bat jarri dute martran. Programaren helburua gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioaren bidez, drogen gehiegizko kontsumoari aurre egitea da. Guk gazteen ahotik jakirt nahi izan dugu drogomenpekotasuna arazoa den ala ez. Horretarako, drogekiko daukaten jarrerari buruz hitz egin dugu beratekin.*

GAZTEEN ARTEAN DROGA ARAZOA AL DA?  
ARAZOA BADA, IKUSTEN AL DIOZU IRTENBIDERIK?  
ZEIN DA DROGEKIKO DUZUN JARRERA?  
PROBATU AL DUZU SEKULA DROGARIK?  
DROGAK LEGALTZATZEAREN ALDEKOA AL ZARA?  
HITZ EGIN AL DUZU INOIZ GURASOekin DROGEI BURUZ?



**Iñigo Irazahalbeitia**  
14 urte

111 Jende askok hartu egiten ditu eta beraz, terako kalterik egiten, beraz, dut uste dnIga arazo hamhzt dag(v-enik gazteen anean.

• Irtenbide hat drogen szdnettntia igotzezt itan daiteke. herez nahiko 1.1arestiak badira ere. Dena den, hori ez litzateke hain' soluzio ona izango. bandatismo gehiago eragingo litke-etzt.

• Nik uste dut gorputzarentiat cr direkt onak. baina jende ongi pasatzeko banzen dint.

111 Zeozer edanda nago, haina beste munduko gauztrik ez.

■ Lion ere er litzateke idea txarra izango. horrela nahl due harniko luke eta nahi ei duenak ez. etzt beste gatzitztk hakean taziko litutkett. ' Izan ere. chogen alazolt dela-eta bandali.moa eta lapurretak izaten dira.

• Drogei buruz ez dut hitz egitt. baina kontut ibiltzeko e\*alt izan didate inoiz. Nitekin kontidantza dute eta gainera dut uste araztla ikusten dutenik. Ikogei buruzko gauzaren hat ulertuko cr banu galdetutal niel.e. baina hori nahigabe ikasten den gauza bat da.

• Gazte batzuegan ikusten da. Baina garai bate-tik hona jaitisi egin da, hala ere jende gazteak asko erretzen du oraindik.

• Bakoitzaren esku dago arazoari Menbidea aurkitzea. Baina biderik onena, gutxiago kontsumitzea izango litzateke.

■ Drogek kalte handia egiten dute pertsonengan, batez ere orain modan dauden pastilla horiek, eta nik ez nituzke probatuko.

111 Alkohola probatu dut, baina hori baino gogorragoak diren droga asko daude. Gainera,

alkohola edanez gero kontrolatzen saiatzen naiz.

■ Ez. Orain legalizatuta egon gabe ere kontsumitzen dira, beraz, legalizatuta baleude gehiago kontsumituko lirtekela uste dut.

• Askotan ez, hala ere, gurasoek esan izan didate drogarik ez hartz.eko.



**Izaro Mendikute**  
14 urte

\* Batztek izangodituzte droga arazoak. Drogen artean alkohola eta tabalcoa sartuz gero arazoa badagoela uste dut.

• Norberak pentsatu behar du zer hartu eta zer ez. Bakoitzak bere buruari bueltak eman eta pentsatzea da irtenbidea,

ffi Nik drogarik ez dut hartzen, erre ez dut sekula egin eta edan ere oso gutxi. Beraz, dnagak ez hartzearen aldeko jarn\_Ta izango litzateke nirea.


• Oso noizbehinka edaten dut alkohola, baina bes-tetik ezer ere ez.

▪ Segun eta zein. Alkohola legalizatzea tamaina batean ondo dago, baina kokaina eta horrelakoak legeztatzea ez dut horren zuzen ikusten. Arriskua denekin dago eta onena batere ez legatizatzea litzateke.

IMEz, drogek in arazorik ez daukadalako. Agian komenigarria litzateke gurasoekin gai hau tratatz,ea, nik noizbehinka arrebarekin hitz egiten dut drogen arazoari buruz.



**Oier Arizmendi**  
14 urte



**LITURAK**

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. u 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK eta FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**iri 0 n dO TABERINA**

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
eta asteburuetan 9:00etan.

Pedro Muguruza, 2• Tel: 943 74 00 15

## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak . 943 461111  
Txanda hartzeko . 943 743354  
Planning-a ..... 943 742950  
Alkoholiko Anonimoak . 943740385  
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622  
Gurutze Gorria . 943 743864  
Mendaroko Ospitalea . 943 032800  
Odol Emailak . 943 743936

### GAR RAI OAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442  
PESA (Eibar) . . 902 10 12 10  
Taxi geltokia . . . 943 740898

### UDALA

Euskara Zertntzua.. 943 744366  
Udal Kirol Patronatua.. 943 744415  
Kultura Zerbitzua . 943 742158  
Mendaroko Udala... 943 756100  
Ongizate zerbitzua ... 943741008  
Udaletxea ..... 943 741050  
Udalzaingoa . . . 943 741394

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626  
Kiroldedia ..... 943 744415  
Kontsumo Bulegoa ... 943 743088  
Liburutegia ..... 943 743525  
Musika Eskola .. 943 742145  
M ntxeta ..... 943 744315  
Parrokia ..... 943 740842  
Postetxea ..... 943 741547  
Gaztetxea ..... 943 743572

### ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza.. 943 740296  
Zaharren Biltokia . 943 740526

### IKASTETXEA

Haur Eskola . 943 74 21 41  
HHI (EPA) . . 943 74 08 80  
Herri Eskola . 943 74 08 79  
I.M.H. .... 943 74 41 32  
Herri Institutua  
Arreiture . . . 943 74 02 67  
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19  
Ikastola ..... 943 74 44 41  
Pilar Ikastetxea . 943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN ..... 943 74 41 12  
El Diario Vasco .. 943 74 40 73  
El Correo Español.. 943 74 10 82  
Zazpiki irratia . 943 74 34 74

## 28 ostirala

**19:00 ELGOIBARKO IZARRA IDATZ LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**

**Kultur** Etxeko hitzaldi gelan Ondoren,  
`Goenkale'ko aktore gazteekin elkarrizketa  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarra

**22:15 ZINE KLUBA**  
"Under the sun"

## 2 larun ata

**19:30-22:15 ZINEA**  
"007 El mundo nunca es suficiente"

## 30 igandea

**10:30 ZIKLOTURISTEN IRTEERA**  
Antolatzailea: Lagun Taldea  
Txankakua zubitik

**19:30-22:15 ZINEA**  
"007 el mundo nunca es suficiente"

## 1 aste ehena

**22:15 ZINEA**  
"007 el mundo nunca es suficiente"

## 1 asteartea

**20:00 SANTA ESKEKO ENTSAIOA**  
**Kultur** Etxeko sotoan

## 2 asteazkena

**15:30 HITZALDIA**  
Gaia: Baserriaren transmisioari buruzko lege herria  
Hizlaria:  
Pili Zubiarraín abokatua  
Antolatzailea:  
Enba haseritarren sindikatua

## 3 osteguna

**20:00 SANTA ESKEKO ENTSAIOAK**  
Kultur Etxeko sotoan

**21:30 ZINE KLUBA**  
"La vida es silbar"

## 4 ostirala

**14:30 SANTA ESKEA BASERRIZ BASERRI**  
Irteera Plaza Handian  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarra

**21:30 ZINE-FORUM-A**  
Hizlaria: Eskarne larrinaga hezitzaile eta sexologoa  
Kultur Etxean  
Antolatzailea:  
Haizea Emakume Taldea

**22:30 ANTZERKIA**  
Antzezlanak:  
"Euskal off 2050"  
Taldea: Hika Herriko Antzokian  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Udala  
Laguntzailea:  
"Arigera" proiektua"

• • • • • RI ■ • R • • ■ 11 • • EI ■ • • 111 • ■ RIZOR RI •

**ZINE WNE A**



**107 el mundo nunca es surichntte"**  
James Bond super agente famatuari buruzko 19. pelikula da honako hau. Bertan, Caspio itsasoaren azpian gordeta dagoen petroleoa da gaizkiaren eta heroiaren arteko liskarren eta borroken eragilea. Munduko agente sekretu famatuena mundu osoan zehar jarraituko ditu gaizkileak; Londres, Eskoziak, Turkia... Euskal Herrira ere ailegatuko da, Bilbora, hain zuzen ere. Izan ere, mundu osoa ere ez da aski James Bond-entzat.

**Zuzendaria: Michael Apter.**  
**Antzezleak: Pierce Brosnan, Sophie Marceau, Robert Carlyle.**

• • III RI IR • • 11 REIR ERI • • • ■ 11 • ■ • 111 •

• **Adarra mendira irteera otsailaren 19an**

Morkaiko Mendizale Elkartek Adarra mendira irteera egingo du otsailaren 19an. Menditik jaitsi ostean, sagardotegira joango dira bazkaltzera. Izen ematea Morkaiko Mendizale Elkartek Errosario kalean duen egoitzan egin daiteke ostiral edo larunbat goizetan edo 943 74 02 97 telefonora deituz. Irteera goizeko 8:00etan izango da Plaza Handitik.

• **Elikadura eta osasuna hobetzeko ikastaroak**

'Kemen' belardendak elikadura eta osasuna hobetzeko ikastaroak antolatu ditu. Asteartero izango dira klaseak otsaileko astearte guztietan. Klase bakoitzak ordubeteko iraupena izango du eta ikastaroan izena emateko 1500 pta. ordaindu beharko dira. Elikagai desberdinak nahasteko modurik osasungarrienak eta dieta sendagarriei buruzko klaseak izango dira, besteak beste. Interesatuak 943 74 40 31 telefonora deitu.

• **'Ilgoibarko Izarra Idatz Lehiaketak 99' sari banaketa gaur, hilak 21, izango da**

Gaur, hilak 21, Elgoibarko Izarra Elkartek antolatzen duen Idatz Lehiaketako sari banaketa ekitaldia izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan arratsaldeko 19:00etan. Lehenik, Etxegiña Bertso-Paper Lehiaketako sari banaketa egingo da. Ondoren, 'Goenkale' telesaileko bi aktore gazte elkarrizketatuko ditu Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartanak. Aintzane Gamiz, "Elene" eta Manex Rekalde "Julen" izango dira Elgoibarrera etorriko diren aktoreak. Azkenik, ipuin lehiaketako sari banaketa egingo da.

• **Helduen Hwiwnlzan (EPA) matrikultzeko epea irekita dago**

Helduen Heziketa (EPA) zentrutik aditzera eman digutenez, maila guztietan matrikultzeko epea zabalik dago. Irakurtzen eta idazten ikasi edo Graduatu Eskolarra atera nahi dutenek, Pedro Muguruzako ikastetxe zaharrean eman dezakete izena. Goizetan 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldetan 16:30etatik 19:30etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 08 80 telefonora deitu.

• **Santa Ageda eskea baserriz baserri**

Datonen ostiralean, otsailaren 4an, Santa Agedaren onienez baserriz baserri kopla kantari eta eskean arituko dira Elgoibarko Izarrako bi talde. Aurten San Migel, San Pedro, San Lorentzo, San Roke eta Urruzuno auzoak koplaturiko dituzte. Arratsaldeko 14:30ean hasiko dira baserriz baserri. Koruan parte hartu nahi duten guztiek 943 74 16 26 telefonora deitu behar dute otsailaren la baina lehen.



• **Baserriaren transmisioari buruzko lege berria azaltzeko hitzaldia**

Urte berriarekin batera Gipuzkoako baserriak oinordekoei transmititzerakoan lege berria Saall zen indanean. Lege honen garrantzia ukaezina da, bai historia aldetik, baita baserrien eguneroko martxarako ere. Azken batean, baserria bere osotasunean seme/alaba bakar bati transmititzeko aukera ematen baitu. Hori dela-eta, Enbak, baserriaren sindikatuak, bilera formatiboak antolatu ditu eskualdez eskualde Gipuzkoa osoan. Elgoibarren datorren asteazkenean, otsailaren 2an, emango du Piñi Zubiarrain abokatuak gai honi buruzko hitzaldia.

~ ril **IB1211**

**FARMAZIAK**

- Egunez Gaeuz
- 29** Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)
- 30** Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)
- 31** Escala Escala
- 1** Bidasolo Bidasolo
- 2** Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean)
- 3** Fernandez Fernandez
- 4** Yudego Yudego

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**J. IGNACIO FERNANDEZ** Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kafabarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**  
 30 tgandea Foteru

• • • EI 111 • EI • • III • III III EI • 1111 III • 111 • • IIII 111 • • •

**ONGARRI**  
 zine kluba



**"La vida es silbar"**

Sundane, La Habana eta Berlineko zinemaldietan saritutako pelikula da honako hau. La Habanan (Kuba) kokatzen da istorioa eta zoriontasuna lortzeko bilaketaz hitz egiten du. Bebe, 18 urteko neska gaztearen ikuspegitik kontatzen dira gauzak. Bide batez, kubatarren bizitza nolakoa den jakiteko aukera paregabea eskaintzen du. Beti ere surrealismo eta umore ikutuaz. 1998. urtean Kuban egin zen pelikula bakarra izan zen.

Zuzendaria: Fernando Perez.  
 Antzezleak: Luis Alberto Garcia, Coralía Veloz, Claudia Rojas.

■ IE al • II III III • • • IIII III III • • • Ia • 111 • • 11 111 ■

**Oharra**

Merkatu txikirako oharrik asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

**Lana**

• **ESKAINNTZA**•

- Larunbatetan tabernako sukaldean laguntzeko neska behar da. isr 943 74 37 71
- Sukaldaria eta kannarera hehar dira tahernan lan egiteko. v 943 12 73 34

• **ESKAERA**•

- Neska esperientziaduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Egunean 2 orduar 609 52 68 69
- Erizaintzan diplomatutako neska eskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Gaez nahiz egunezv 943 74 27 78 (Itziar)
- Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. Ir 943 74 29 73 (Andone. Goizez deitu)

**Partikularrak**

- Gazte talde batek frantseseko irakaslea behar du. a 600 64 33 61
- 6 urteko ume bati euskara irakaste pertsona bat behar da. Astean 2 ordubete. v 943 74 07 07 (20:00etatik aurrera deitu)
- 7 urteko ume bati klase partikularrak emateko euskaraz dakien pertsona bat behar da, lehen bailehen.v 943 74 00 33 (Sara)
- Logseko I. mailako ikasle bati matematika eta fisikako klaseak emateko irakasle partikularra behar da. la 943 74 28 44 (20:00etatik aurrera deitu)
- DBHko 4. mailako ikusleei matematika eta fisikako klaseak emateko irakasle partikularra behar da. Euskaraz jakinez gero hobe. as 943 74 08 46

**Garajea**

- Garaje itxia alokatzen dut Ermuarabide kalean. v 943 74 28 24

**Etxebiziliak**

- Etxea saltzen dut Altzolan. Prezio ona. v 943 74 37 41
- Etxea saltzen dut. Hiru gela ditu. v 943 74 41 35
- Pisua saltzen da urasandin altzariekin. 85m<sup>2</sup> ditu. ar 943 74 39 91
- Buhardila herritua saltzen da. tr 943 74 00 93
- Lokala saltzen da Altzolan. 75m<sup>2</sup>. 74 943 74 39 91
- Etxea alokatuko nuke Elgoibarrren. 3 gela edo 2 logela eta egongela .zr 696 47 16 95 (Manu)
- \*Bergarako erdigunean etxea salgai.v 943 76 54 24 (gaez deitu)
- Etxebizitza (gantjea+ganbara) salgai Basarte Kanean. Eraikitzeaz. Lehen eskukoa.v 943 86 52 17/ 943 74 20 84
- Pisua behar dut alokairuan. 72 943 74 04 86
- Urasandi kalean logelak alokatzen ditut. Sukaldea eta egongela erabiltzeko aukerarekin. ✓ 943 74 03 93

**Salerosketak**

- Opel Astra SS-AS salgai, 650.000 **pta.** ar 943 74 09 44
- Artzai euskaldun txakur-kumeak saltzen ditut. Emeak dira. **.zr 943 70 26 34**
- Boxer arrazaku txakur-kumeak salgai. Pedegreearekin. e• 696 05 73 46
- Eskiak **eta** botak salgai. **tr 943 74 18 55** (Gaez deitu)
- **Bakiasarai** markako botoidun soina salgai. 120 baju eta sistema konbentorea. a 943 74 15 29 (Lorea)
- Gitarra unplifikadorea salgai. Hasi berrientzat aproposa. 10 W. Prezio onean eta nahiko berrria, ia 943 74 13 97 (Ander)

**Bestelakoak**

- Animalia ile luzedun alfombra, edota larruak botatzeko badituzu, deitu 943 74 33 46 telefonora. Jasozeraz joango gara.
- Bi neskak errealeko *bufa* topatu dute merkatu plazako eskilaretan eta Utlaltzaingoan dago.
- Caritasek butanozko kaiefakzioak hehar ditu. a 943 74 40 49
- Gahon aurretik hideo zinta hat galdu nuen Ikastolan. v 943 74 25 17
- Erlojua zintzi lik duen zilarrezko kate bat galdu dut. v 943 74 OI 50
- "La UniOn" ehiza eta arrantza elkarteko 2 akzio salgai. ar 943 74 16 88 (Juan)
- + 9 hilabeteko Kollie-artzai txakurkume alemana oparitzen dut. ser 606 05 65 48 (Sara)

**Agurrak**

- Zorionak Stela!!! atzo, hilak 27, 12 urte bete zenituelako. Laster bastoia beharko duzu. Zuk bada-kizu zeinen partez. Zorionak 72-hartxot
- Zorionak **Xabati**, hilaren 25ean urteak bete zituelako. 1. pisuko zure lehengusu eta osaben partez.
- Zorionak **Ainhoari**, urtarriaren 25ean urteak bete zituelako. Bere mailakoen parte.
- Zorionak **J.M. Martin Priotori**, hilaren 25ean 2 urte bete zituelako. Guraso Victor eta Mayteren, abuelo-abuela Amalio eta Maryren, uiton-amona Laure eta Piliren eta hirraiton-amona Jainre, Andrea eta Pilarren partez. Eskerrak guztiei opariengatik.



• Zorionak **Ainhoa Arevalori**, urtarriaren 25ean. urteak bete zituelako. Ikastolako DBH.lekoen partez.

♦ Zorionak **Nerea Gili**, bihar, urtarriaren 29ean, urteak heteko dituelako. Ikastolako DBH.lekoen partez.




• Zorionak **Oihane Garateri**, urtarriaren 30ean, urteak heteko dituelako. Ikastolako DBH.lekoen partez.

• Zorionak **Ander Martini**, urtarriaren 26an, 11 urte bete zituelako. Gurasoen eta anaiaren partez.




• Zorionak **Jon Ander Martini**, datorren asteartean. otsailaren 1ean, 4 urte bete zituelako. Gurasoen eta familiaren partez, egun ederra pasatu.



♦ Zorionak **Joni**, hilaren 6an urteak egin zituelako. Zorionak baita ere Nagoreri, hilaren 31an urteak heteko hitaitu. Etxeko guztien partez.



\*Zorionak **Leireri**, bere ahizpa Aneren, gurasoen. aiton-amonen eta familiaren partez.



• Zorionak **Maitane Moredari**, hilaren 31n, 11 urte heteko dituelako. Gurasoen eta bere ahizparen partez.

# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

## AROSZTEGIAK

**B1ENA**  
Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
943 74 31 16

**GARCIA**  
Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
Tr 943 74 32 38

**LODOSO**  
Leihoak  
Ermuaranbide, 16  
Tr 943 74 34 90

**SORALUZE**  
Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
Ir 943 74 36 34

**ULAZIA**  
Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
943 74 05 47

**ZABALA**  
Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea, 16  
1T 943 74 03 96

## ICAANIIDL/U

**GLAS CONTROL S.L.**  
Inpermeabilizazioak  
Olaso 27, 47. pabiloia  
Tr 943 74 30 94

## ITURGINTZA

**ANGEL**  
Santa Ana, 5  
943 74 17 61  
689 04 92 06

**JAVI**  
Erretxindi, 1  
w 608 77 29 32

**ONGI**  
Urasandi, 8  
943 74 10 82

**PAGOAGA**  
San Antolin, 13  
943 74 02 79

**TELLABIDE**  
Azpilgoeta, 19 MENDARO  
v 943 75 50 62  
tr 607 75 50 62

**ZALDUA**  
Urasandi, 26  
'a 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**  
Ubitarte, 5  
• 943 74 07 89  
Tr 608 14 30 40

PE0\_11 11ME

**JESUS Me GABILONDO**  
Ubitarte, 4-5 esk.  
D 943 74 45 99

## PINTURAK

**1PINTZA**  
Foruen enparantza, 4  
943 74 04 40  
607 74 04 40

1111LMUE177F

**ARAMAR**  
Morkaiko, 1  
z' 943 74 12 80

**AZPELETA**  
San Frantzisko, 51  
943 74 12 38

**BETI ARGI**  
Errosario, 6  
z' 943 74 16 44

**URZELAI**  
Santa Ana, 12-14  
943 74 13 76

## gOYZIRIVII

**ANTONIO MARKEZ**  
Urasandi, 24  
z' 943 74 34 18

**ASKETA**  
Osio, 7 DEBA  
629 34 43 89


**JOSE LUIS MENDEZ**  
Urasandi, 24  
943 74 29 87  
IEr 689 58 47 23

**IPINTZA**  
Trenbide, 25  
'a 630 95 97 58-7  
Faxa: 943 74 45 97

fraddt.' 41.1

botwol.

# Hika teatroa



# EO euska! off 2050

<sup>01</sup>  
otsailak 4, optirala  
gaueko 22:10ean  
Herriko Antzokian  
sarrera 700 pta.

Antolatzaileak: \_\_\_\_\_

Laguntzaileak: "ARIGERA PROIEKTUA" \_\_\_\_\_



Udaleko Euskara  
eta Kultura sailak



Elgo bako Izarra  
Kultur Elkartea



AEK euskaltegia



Udol euskaltegia